

anboto

2019ko apirilaren 12a | 17. urtea | 759. alea

**DURANGALDEKO
ASTEKARIA**

www.anboto.org

TOKIKOM



Badator Korrika Durangaldera

Klika



ALKI
BARNE DISEINUAK-en,
bizi izateko espazioak
sortzen ditugu.

alki@interioresalki.com

Mikeldi kalea 6, 48200 Durango. 946813895 / 679097744



1983ko Korrika, Elorrioko plazatik pasatzen. Roberto Zarrabeitia



2013an Urkiolan behera etorri zen lehenengoz Korrika. Mañaria eta Izurtza zeharkatu zituen gero.



2017an Zornotza atzean utzi zuen unea.



2017an Otxandion hasi zen 20. Korrika, eta Iruñean amaitu.

Badator Korrika, Durangaldean barrena ere euskararen alde 'Klika' egiteko helburuz

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA
Joan zen eguenean hasi zen 21. Korrika, Garesen (Nafarroa), eta ordutik gelditu barik ibili da kilometroak osatzen Euskal Herrian zehar. Domekan ailegatuko da helmugara, Gasteizera, baina bidean gure eskualdetik ere pasatuko da. Bihar, 15:50ean sartuko da Mallabian, eta hortik aurrera emozioz beteko dira Durangaldeko kale eta errepideak. Iluntzean Zornotza atzean utzi, eta goizaldean eskualdeko lurraldeak zapalduko ditu berriro Korrikak, kasu honetan Otxandion. Badator Korrika, eta euskaltzaleak prest dira lekukoa hartzeko, euskararen alde *klika* egiteko.

"*Klika* egitea aukera bat hartzea da, euskararen aukera hartzea, hautua egitea. Hautua da euskara ikastea, erabiltzea, inplikatzeta, jautzia ematea. *Klika* egitea euskaraz ahalduntzea da, euskaltegietan ma-

trikulatzea", dio AEKren aurkezpen mezuaren hasierak. Aurten ere, lekukoak mezu berezi bat eramango du barruan, eta domekan irakurri-

"Klika egitea aukera bat hartzea da, euskararen aukera hartzea, hautua egitea"

ko dute amaiera ekitaldian. Mezuaren idazlea zein den ere orduan jakingo da.

Txillardegiri omenaldia

Korrikaren edizio bakoitzean pertsona edo talde bat omentzen du AEK-k. Orain urte bi, adibidez, AEKren eta Korrikaren sortzaileak izan ziren omenduak. Aurtengoan Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegiri* omenduko du. "*Txillardegirik* utzitako ondarea, literaturan, iker-

kuntzan, irakaskuntzan, euskalgintzan, handia da; bere sasoian, *klika* egin zien euskarari, literaturari, herriari...", gogoratu dute AEKkoek. Euskara batuaren bultzatzaileetarikoa bat izan zen, eta eredu bateratu hori sortu zela 50 urte bete direnez, 2012an hildako euskaltzalea gogoratzeko une egokia ikusi dute Korrikaren antolatzaileek.

Korrikak emango duenaren berehalako jarraipena egingo du ANBOTOK

Gasteizen, amaiera jaia

Domekan, Gasteizko Andra Mari Zuriaren plazara helduko da Korrika, 12:30ean, eta ekitaldi baten ostean jaia nagusituko da hirian. Herri bazkaria, kontzertuak, ekoiz-

leen eta artisauen erakusketak... deneriko eskaintza egongo da. Durangaldetik ere hainbat jende joango da Gasteizera; Abadiñotik eta Zaldibartik, esaterako, autobusak antolatuta dituzte.

ANBOTOn jarraipena

Bihar eskualdean Korrikak emango duenaren berehalako jarraipena egingo du ANBOTOK bere webgunean (www.anboto.org) eta sare sozialetan. Gainera, webgunean zuzenean ikusi ahalko da.

Ibilbidea

Zapatua

- Mallabia 15:50
- Zaldibar 16:21
- Berriz 16:35
- Elorrio 16:56
- Atxondo 17:59
- Abadiño 18:20
- Durango 18:55
- Iurreta 19:37
- Zornotza 20:05

Domeka

- Otxandio 01:01

Zapatuko egitaraua

- **Abadiño**
14:00etan bazkaria
20:00etan txaranga
- **Berriz**
18:00etan Diskorrika
21:00etan afaria
22:00etan Dj Ainhua
- **Durango**
12:00etan trikipotea
14:30ean bazkaria
Plateruenean
- **Elorrio**
13:00etan erromeria
15:00etan argazkia
- **Garai**
12:30ean Korrika txikia
13:00etan bazkari herrikoia
- **Mallabia**
17:30ean txaranga
- **Iurreta**
14:00etan paella
17:00etan kantu-potea
- **Otxandio**
Korrika ostean txokolatea
- **Zaldibar**
13:30ean bazkaria gaztetxean
17:30ean diskofesta
19:00etan luntxa
- **Zornotza**
13:00etan taloak
14:30ean kantu-dantza
19:30ean txaranga



Korricursa, Bartzelonatik Elorriona

Durangaldeko hainbat gazte Bartzelonako Korricursan egon ziren zapatuan; pankartan Mikel Elizaran iurretarra ikusi daiteke, eta Sorginola gaztetxeok ere parte hartu zuten. Bartzelonako Euskal Etxeko lagunek lekukoa hartuko dute bihar, Elorrion.



Berbaro, 30 urte ospatzen

Durangoko Berbaro euskara elkarteak 30 urte bete ditu aurten, eta Korrikan ere presente egongo da ospakizun hori. Maite Agirre sorrerako bazkideak hartuko du lekukoa, Landako etorbidean, ANBOTO eta Platerueneko kide banagaz batera.



Irlandan ere euskararen alde

Irlandako Cork hirian ere euskararen aldeko mezua zabaldu zuten barikuan. Tartean, zenbait abadiñar eta durangar ziren. "45 bat lagun ibili ginen, giro politean. Euskara ikasten dabilzan irlandar batzuk ere egon ziren gugaz", azaldu du Maddalen Iturriagaitiak.



Euskara, integrazeko tresna

Sei migratzailei aterpea ematen dabil Atxondoko harrera taldea, eta sentsibilizazioa eta integrazioa ere lantzen ditu. Ildo horretan, udalak herrian hartutako kilometroetako batean lekukoa eramango dute sei migratzaileek, taldekoen babesagaz.



Orreagan, elurretan

Durangoko eta Iurretako kuadrilla honek Orreagan hartu zuen lekukoa, "euskaldunontzat duen esanguragatik". Elurretan egin zuten korrika. "Esperientzia zoragarria eta ahaztezina izan da, eta errepikatuko dugu", esan dute hunkituta.



Pentsiodunak martxan

Astelehenero elkartzen diren pentsiodunek manifestazioa egingo dute bihar, Bilbon. Baina Durangaldeko zenbait pentsiodun hemen geratuko dira, Korrika Durangaldetik pasatzen delako. Iurretakoek, adibidez, herrian hartuko dute lekukoa.



Estazioko planak atzerapauso bat eman du, baliorik barik geratutako hitzarmena beharrezkoa delako proiektua garatzeko.

ETSgaz lotutako hitzarmena baliorik barik utzi du epaitegiak, eta udalak errekurritu egingo duela iragarri du

Estazioko eremuan 18 pisuko dorreak eraiki ahal izateko, eraikuntza muga gainditu egin zuen ETSk, eta indemnizazio moduan 4,2 milioi euro eman behar zizkion udalari

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

ETS eraikuntza muga gainditu zuen estazioko eremuan 18 pisuko dorreak egin ahal izateko, eta indemnizazio moduan 4,2 milioi euro eman behar zizkion udalari. Alde biek hitzarmen bat adostu zuten 2017ko abuztuan: indemnizazioa ordaintzearen truke, ETSk trenbideko trazatuaren lurra eman zion udalari (2,58 milioi euro) eta bere gain hartu zuen geltoki kanpoaldeko obra (1,34 milioi euro). EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak alegazioak egin zituzten, baina atzera bota zizkieten eta auzitara jo zuten. Bada, Bizkaiko epaitegiaren sententziak baliorik barik utzi du hitzarmena. Ondorioz, estazioko planak atzerapauso bat eman du, hitzarmen hori beharrezkoa delako eremua birmoldatzeko.

2017ko hitzarmen hori Mari Jose Balier hirigintzako presidentek sinatu zuen. Baliorik barik lagatzeko, epaitegiak arrazoitu du ez zela Baliarren eskumena, 360.000 eurotik gorako hitzarmenak Gobernu Batzordeak sinatu behar dituelako. Beraz, forma akats batean oinarritu da ETSren eta udalaren hitzarmena

Indemnizazioa ordaintzearen truke, ETSk trenbideko trazatuaren lurra eman zion udalari

Baliorik barik lagatzeko, epaitegiak arrazoitu du ez zela Baliarren eskumena hitzarmena sinatzea

atzera botatzeko, eta ez da sartu salaketaren bestelako balorazioetan. Bestalde, auziaren kostuak udalak ordaintzea ezarri du sententzian.

Udalaren helegitea

Udal gobernua ez dator bat sententziagaz, eta helegitea ipiniko duela iragarri du. "Gobernu taldeak uste

Gobernu taldeak uste du, epaiak ezarritakoaren aurka, akordioa "baliozkotasunez" hartu zela

du, epaiak ezarritakoaren aurka, akordioa baliozkotasunez hartu dela eta ez duela onartutako deuseztasun-akatsik izan", esan dute prentsa ohar bidez.

"Herritarrei galdetzeko aukera" dela dio oposizioak

Hitzarmena auzitara eraman zuten alderdiek —EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak— prentsaurrekoa eman zuten sententzia irten eta gero. Euren ustez, hitzarmena baliorik barik egotea "proiektua geratu eta herritarrei galdetzeko urrezko aukera da", Dani Maezturen esanetan.

Alegazioak egitean hitzarmena "ilegala" zela abisatu zutel

eta hala ere gobernuak aurrera jarraitu zuela salatu du oposizioak. Hitzarmena bera ere ez dute begi onez ikusten. "ETSri dirua barkatu gura izan zioten. Baina trazatuko lur hori durangarrena da", zioen Maeztuk. Ezarritako kostuen harira, "arduragabekeria" gobernuak ordaintzea eskatu zuen Julian Riosek, eta ez diru publikotik.

Gorka Lupiañezi ezarritako zigorraren aurka, elkarretaratzera deitu dute Elorrioren

DURANGO • M.O.

Gorka Lupiañez preso durangarra 2007an atxilotu zuen Guardia Zibilak, ETAko kide izatea leporatuta, eta geroztik espetxean egon da. Zigor hori aurtent beteko du, baina Auzitegi Nazionalak beste auzi bategatik epaitu du orain. Sententzian 48 urteko kartzela zigorra ezarri diote, eta baita kalteak ordaintzea ere.

Lupiañezi ipinitako zigorra salatzeko, elkarretaratzera deitu dute Kalera dinamikakoek. Domekan izango da mobilizazioa, 19:00etan, Elorrioko plazan.

Uneotan, Salamancako (Espainia) kartzelan dago disperstatuta preso durangarra.



Gaixorik dauden presoak etxeratzea eskatu dute

DURANGO • M.O.

Sarek deituta, gaixotasun larriak dituzten presoak etxeratzea eskatu zuten domekan Durangon, San Agustino eta Andra Mariko zubiak lotu zituen elkarretaratze batez. Osasunaren Nazioarteko Eguna izan zen domekan, eta kartzelan gaixorik dauden egoera ikustarazi gura izan zuten. Berziki Gorka Fraile durangarra izan zuten gogoan, eta bere askatasuna eskatu zuten.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko apirilaren 12a
17. urtea - 759. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta Karolina Suarez Borges.
Maketazioa: Bea Sierrasumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Zerbitzu berria martxan jarrita, Durangoko kaleak maizago garbituko dituzte orain

Erdiguneko eremuan arratsaldeko erreposoa gehitu dute, eta kanpoaldeko auzoak astean bost bider garbituko dituzte



Kaleak garbitzen eta hondakinak batzen ibiliko den behargin taldea, Santa Anan ateratako talde argazkian.

DURANGO • MARTEL ONAINDIA

Astelehenean aktibatu zuen udalak kaleak garbitzeko eta hondakinak batzeko zerbitzu berria. Horri esker, kaleak maizago garbituko dituzte. Erdiguneko eremua Mada-

lena eta Ibaizabal ingurura luzatu, eta eguneroko garbiketari arratsaldeko erreposoa gehitu diote. Erdigunetik gertu dauden kaleak ere egunero garbituko dituzte arerantzean. Bestalde, kanpoaldeko

Hondakinen bilketari dagokionez, 339 kontainer berri ipini dituzte kaleetan

auzoetara astean bost bider joango dira garbitzaileak. Orain arte hirtan joaten ziren. Udalak hobekuntza horiek nabarmendu ditu. Izan ere, azken urteetan auzotarren kexa iturri izan da gaia.

Hondakinen bilketari dagokionez, 339 kontainer berri ipini dituzte kaleetan egunotan. Aipagarria da ere, altzariak batzeko zerbitzua asteko hiru egunetan egongo dela. Aurrez, baina, herritarrek 944 355 750 telefonora deitu beharko dute abisu emateko.

Kontratu berriaren baitan gai organikoen bilketa jasotzen da. Hori gehituta, birziklapen tasa %60ra ailegatzeko helburua dauka udalak. Hala ere, sanfaustoen osterara arte ez dira hasiko kanpainagaz.

Sanfaustoen osterara arte ez dira hasiko gai organikoen kanpainagaz

10 urterako

2006tik indarrean zegoen kontratua lehiara atera zuen iaz udalak, eta Cespa enpresari adjudikatu zion 10 urterako, urte bakoitzerako 2,7 milioi euro emanda. Behargin talde berak jarraitzen du lanean; makineria berria dute erabilgarri, eta kamioi bi erosiko dituzte hondakin organikoa batzeko. Kontratua onartu zenean, EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak langile gehiago kontratatzeko aurreikuspen eza salatu zuten.

AURREMATRIKULA
ZABALIK
BATXILERGOA
2019-2020

Maiatzaren
2tik 14ra

ZATOZ
GUGANA
IZENA
EMATERA



jsu
Jesuitak

Durango

Biharko ametsak, gaurko erronkak



94 681 00 50

sanjose@durangojesuitak.org
www.informazaitetz.eus/ateirekiak

Zornotzan indarkeria matxistaren 28 biktima artatu zituzten 2018an

Kasu horiei modu koordinatuan erantzuteko helburua duen erakundeen arteko protokoloa onartu zuten udalbatzarrean



Azken lau urteetako datuak kontuan hartuta, indarkeria matxistaren 90 kasuren berri izan zuten Zornotzan.

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Zornotzako Udalak, Osakidetzak eta Ertzaintzak indarkeria matxistaren 28 biktima artatu zituzten iaz Zornotzan, udalak emandako datuen arabera. Azken lau urteetako daturik altuena da: 2015ean 19 kasutan esku hartu zuten, 2016an 20tan, eta 2017an 23tan.

Datu horiek denak Zornotzan indarkeria matxistaren kontra egiteko indarrean dagoen protokoloaren txostenean jasota daude. Hain zuzen, joan zen asteko udalbatzarrean aho batez onartu zuten hurrengo laurtekoari begirako protokolo eguneratua.

Zornotzako Udalak, Osakidetzak eta Ertzaintzak hiru erakundeen arteko lankidetzak koordinatzeko protokoloa dute. Helburu nagusia honako hau da: indarkeria matxistaren kasuren bat gertatzen den bakoitzean ahalik eta modurik eraginkorrenean aurre egitea, erakundeen arteko koordinazioak lagunduta.

Irakasleen parte-hartzea

Iaz gertatutako kasuak adin tarreetan banatuz gero, 18-25 artekoan gertatu ziren gehien: zortzi, guztira (kasu guztien %38,8). Beste horrenbeste gertatu zen 2016. ur-

Joan zen asteko udalbatzarrean aho batez onartu zuten erakundeen arteko protokoloa hurrengo lau urteetarako

Erakundeen arteko mahaira ikastetxeetako irakasleak batzea gura dute, beste ikuspuntu batzuk jasotzeko

tean ere. Jasota zituzten 20 kasuak adin tarreetan arabera aztertuta, 18-25 artekoak izan ziren gehien: kopuru osoaren %36,3, hain zuzen ere. Horregatik, orain arte egin izan den moduan, askotariko ikastaroen bitartez ikastetxeetan gazteei berdintasuna, errespetua eta halako balioak erakusten jarraitzea da helburua, udalak ohar batean azaldu duenez.

Horregaz batera, nobedade moduan, hiru entitateek osatzen duten koordinazio mahaira —urtean birritan batzen da— apurka-apurka irakasleak batzea da aurrera begirako helburuetako

bat. "Zenbait ikuspuntu eskaini ditzakete eta hori beti da interesgarria eta baliagarria", azaldu du Bego Nazabal Zornotzako Udaleko Gizarte Ekintza Saileko ardura-dunak.

Protokolo eguneratuko beste lan ildo bat udaltzaingoko eta gizarte zerbitzuko langileei eskainiko dieten formakuntza izango da. Herritarrekin traturik gehien izan ohi duten zerbitzuak direnez, indarkeria matxistaren kasuetan aurrez aurreko harremana hobetzeko trebakuntza eskaintzea izango da formakuntzaren helburua.

Protokoloko zerbitzuetatik, arreta psikologikoa eta orientazioa izan ziren eskatuenak 2018an

Formakuntza saioak egingo dituzte herritarrekin, aurrez aurreko traturik gehien duten zerbitzuekin

%90ek salaketa jarri dute

Udalak helarazitako datuen arabera, iaz jaso zituzten 28 kasuetatik 20tan esku hartu zuten Zornotzako Udaleko gizarte zerbitzuetan. 28 emakume horien %90ek erasotzaileen kontrako salaketa jarri zuten, eta arreta psikologikoa eta orientazioa izan ziren gehien eskatu zituzten zerbitzuak.

Horrez gainera, azaldu dute, iaz igo egin zen gizarte langileengandik arreta jasotzerako unean babesteko agindua duten emakumeen kopurua: 2017an 8 izan ziren, eta 2018an 11 izan dira.

Musikagaz eta haurrentzako puzgarriekin ospatuko dute Otxandioko Udaberri Jaia

Zapatuan izango da; egun hori aukeratu dute, gauean 21. Korrika igaroko delako herritik

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Herriko tabernari eta ostalarien artean Udaberri Jaia antolatuko dute zapatu honetan, Otxandion. Asteburu hau aukeratu dute jaia egiteko, zapatu gauean Korrika igaroko delako Otxandiotik. Arratsaldeko zein iluntzeko ekitaldien ostean, 01:00 inguruan, ongi etorria egingo diote 21. Korrikari.

Gaztetxoen pilota partiduekin ekingo diote egitarauari, 16:00etan. Eguraldi ona egiten badu, plaza aurreko pilotaleku ire-

Elektro Txufla txarangak kaleko giroa alaituko du, 23:30etik Korrika etorri bitartean

kian jokatu dituzte partiduak, eta euria ari badu, Mainondon dagoen pilotaleku estalian. Iluntxo pilota elkartearen dabilzan sei eta hamar urte arteko gaztetxoen bost bat partidu egongo dira ikusgai.

Horien ostean, 17:30etik 20:30era, haurrentzat hiru puzgarri egongo dira plazan.

Jai giroak gauean jarraituko du, Elektro Txufla txarangagaz. Iaz Otxandioko santamania jaien barruan San Martin egunean jo zuen talde bera da. Orduan herrian jarri zuen jai giroa gustatu zitzaieen antolatzaileei, eta Udaberri Jaia ekartzea erabaki dute. 23:30ean hasiko dira kaleko giroa alaitzen, eta 21. Korrika etorri arteko lotura izango dira.



Elektro Txufla txaranga izango da Udaberri jaiko osagaietako bat.



Askotariko loreak izaten dira salgai azokan.



Elizatik hilerrira bidean ipintzen dituzte postuak.

27 produktorek parte hartuko dute Garaiko Landara eta Lorazaintza Azokaren zazpigarren edizioan

Domeka honetan landarezaleen elkargune bihurtuko da Garai; 10:00etatik 15:00etara bitartean, askotariko landareak, loreak eta tresnak ikusi zein erosi ahalko dira

GARAI • MARKEL ONAINDIA

Domeka honetan landarezaleen elkargune bihurtuko da Garai, Landara eta Lorazaintza Azokaren zazpigarren edizioa egingo baita herrigunean. 10:00etatik 15:00etara bitartean, askotariko landareak,

loreak eta lorezaintzako tresnak ikusi zein erosi ahalko dira. Gainera, Durangaldeko hiru baserritarrek bertako jakiak ere eskainiko dituzte: gazta, txakolina, sagardoa, baserriko ogia eta euskal pastela. Guztira, 27 produktorek parte

Jakiak ere eskainiko dituzte: gazta, txakolina, sagardoa, baserriko ogia eta euskal pastela

hartuko dute etziko azokan. Lore enpresak 17 izango dira eta lanabesenak, 2; horiez aparte, loreak eta egurra uzartzen dituen artisau bat eta aurrez aipatutako hiru baserritarrak ere egongo dira.

Kontsigna eskura

Erosketak egiten dituzten herritarrek kontsigna bat edukiko dute eskura, herritik jai giroan lasai ibili

ahal izateko. Antolatzaileek laguntzaileak ipiniko dituzte gauzak kontsignara eramateko.

Antolatzaileek laguntzaileak ipiniko dituzte gauzak kontsignara eramateko

Garaiko Udalak, Urkiola Landa Garapeneko Alkartek eta Trumoitte kultur elkarteak antolatzen dute azoka, herriko nagusien eta hainbat boluntarioren laguntzagaz.

basque
FEST
basque lands festival

AUPA BASQUE FEST!

MUSIKA KULTURA ZINEMA SPORT GOURMET MARKET

www.basquefest.com

BILBAO 17-21 APIRILA | APRIL AVRIL

BILBAO BIZKAIA be basque

EUSKADI BASQUE COUNTRY Az bbk metro bilbao eitb EL CORREO Deia

Barikutik aurrera, bideo kamerak egongo dira Abadiñoeko eskoletan

ABADIÑO • A.M.

Barikutik aurrera, martxan egongo dira udalak Abadiñoeko eskoletan jarri dituen bideo kamerak. Neurri honeguz, "ohikoak" bilakatu diren ekintza bandalikoiei amaiera eman gura die udalak, Jose Luis Navarro alkatearen esanetan: "Denonak diren gauzak babestea da kamerak jartzearen helburua". Azken hilabeteetan, eskoletan hainbat ate, leiho, sarraila eta txintxaun apurtu dituzte, eta bestelako azpiegiturak zikindurik edo hondaturik agertu direla salatu du Navarrok. Kamerek eskola orduetatik kanpo grabatuko dute: astelehenetik barikura, 20:00etatik 08:00etara bitartean, eta barikuetako 20:00etatik astelehenetako 08:00etara.

Soberakinetik hartutako 145.000 euro erabiliko dituzte hainbat obra egiteko

IZURTZA • J.D.

Joan zen asteko udalbatzarrean, aho batez onartu zuten udaleko soberakinetik diru bat hartzea hainbat obra egin ahal izateko. Bitañon eta Etxanon bide zati batzuk konponduko dituzte. Horrez gainera, beste lan txiki batzuk ere egingo dituzte; besteak beste, kanposantuko txabolan; eta Etxanon bideko ur bilketako hobekuntzan. Guztira, 145.000 euroko kostua izango dute lanek. Orain alegazioen epean daude proiektuak.

Epaileak Atxondoko herri bideen inbentariotik kanpo utzi du Memaiko pista

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Martzaatik Laumunarrietara doan Memaiko pista Atxondoko herri bideen inbentariotik atera behar duela ohartarazi dio epaileak Atxondoko Udalarari. Epaian agerienez, ezin daiteke %100ean egiaztatu bidea publikoa dela, eta, beraz, inbentariotik atera behar da. "Guk ez dugu datu hori sekula ere ukatu. Epaia dio bide hori ez dela publikoa, baina ez gatoz bat, beti izan baita horrela", adierazi dute Atxondoko Udaleko kideek.

Elexpe Sanjoango kultur etxe berriak erabilera anitzeko gela bat edukiko du ardatz moduan

Zaldibarko Udalak batzarra egin du herritarrekin, proiektuari buruzko azalpenak eman eta euren iritzia jasotzeko

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Kultur Etxearen proiektu berriari buruz zaldibartarrek duten iritzia jakiteko, batzar informatiboa egin du udalak. Ekarpinak jaso, aztertu, eta bideragarriak direnak proiektua idazten ari den Atelier 80 arkitektura estudioari helaraziko dizkio. "Kultura batzordean eta kultur elkarteetan gaia landu ostean, zaldibartarrei proposamenaren berri eman gura genien, eta euren

Atelier 80 arkitektura estudioa ari da proiektua idazten; 2019an zehar idatziko dute

iritzia jakitea ere gustatuko litzai-guke", azaldu du Eneritz Azpitarte alkateak

Hain zuzen ere, une honetan erredakzio fasean dago proiektua. Esan bezala, Atelier 80 dabil horretaz arduratzen, esleipen lehiaketa irabazi ostean. Funtzionalitateaz gainera, bestelako ezaugarriak ere kontuan hartu zituzten; adibidez, eraikinak gastu energetiko gutxi edukitzeko.

Eskolaren urbanizazio faseagaz batera, Zaldibarrek datorren urterako duen proiektu nagusietako



Kultur Etxea izango denaren irudia.

bat da eraikina berriztea. Kultur etxe berria urteetan egon den gabeziari buelta emateko gakoa izatea gura du udalak.

Liburutegia eta ikasketa gela ere edukiko ditu kultur etxe berriaren eraikinak

Gela multifuntzionala

2018an jarri zuten martxan kultur etxe berriaren proiektua, ideia lehiaketagaz. Elexpe Sanjoango eraikinean, erabilera anitzeko gela izango da ardatza. Besteak beste, antzerkiak, erakusketak eta aurkezpenak egongo dira bertan. Liburutegia eta ikasketa gela ere bertan egitea

aurreikusi dute. Horiez gainera, batzarrak egiteko gelak ere egongo dira herriko talde eta elkarteentzat. Guztira, 600 metro koadro egongo dira kulturaren esku, hiru solairutan banatuta. 2019an idazlana amaitu ostean, 2020an proiektua zelan finantzatu erabakiko dute, Azpitarteren esanetan.

2011ko zorra laurdenera jaitsi du Mañariko Udalak

Gobernu taldearen iritziz, datu hori erakundearen "aurrekontu-egonkortasun eta ekonomikoaren" isla da



2018ko likidazioa itxi berritan jakinarazi dituzte udalaren egoerari buruzko datuak.

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Azken ekitaldiaren itxiera egin ostean, Mañariko Udalak 850.000 euroko soberakina dauka altxortegian, gobernu taldeak ohar batean jakinarazi duenez. Aipatutako kopuru honek "agerian" uzten du erakundearen "aurrekontu-egonkortasun eta ekonomikoa", gobernu taldearen iritziz.

Aipatutako kopuru horren arabera, 2011an —EH Bilduk alkatetza eskuratzean— baino 400.000 euro gehiago daude altxortegian gaur egun.

Zorra laurdenera jaitsi dute

Horrez gainera, gobernu taldetik informatu dutenez, 2011ko zorra 850.212 eurokoa zen eta berau laurden batera gutxitzea lortu dute;

hau da, gaur egun 212.705 eurokoa da zorra, hain zuzen ere. Horrela, gaur egun udalak "201.107 euroko finantziario gaitasuna" duela adierazi dute gobernu taldekoek. "Datu

Zorrari dagokionez, 2011n 850.212 eurokoa zen, eta egun kopuru horren laurdena da: 212.705

ekonomiko hauek guztiek azken zortzi urteetan Mañariko Udalean egin den kudeaketa ona baino ez dute egiaztatzen, eta agerian uzten dute udalak duen etorkizun oparoa arlo ekonomiko eta finantzarioan", gaineratu dute.

Jesus Mari Uribelarrea 'Txiflis' Mallabiko Jasokunde abesbatzaren sortzailea hil da

65 urteagaz hil zen, martitzenean, gaixotasun baten ondorioz. Kulturgintzan oso maitatua izan zen. Ezpatadantzaria, aurrekularia, atabalaria, maisua eta Mallabiko abesbatzaren sortzailea izan zen

MALLABIA • JONE GUENETXEA

Iurretako Ebro baserrian jaio zen Jesus Mari Uribelarrea Iturriagaetxebarria Txiflis. Gazterik hasi zen dantzan. Aurrekulari trebea, 70eko eta 80ko hamarkadetan makina bat auresku txapelketa irabazi zituen. Gero, atabalaria ere izan zen. Bere osteko belaunaldiagaz dantzari maisua izan zen Iurretan.

Banango doinuagaz, koplak hau sortu zioten Uribelarreari: *Orain nerbijo bako mutilla / baiña dantzari abilla / aurrekulariarik inun bada / 'Txiflis'-engana etor dadila.*

Ezkontzerakoan, Uribelarrea Mallabiko Atxitxe baserrira joan zen bizitzera. Herri honetan ere kultur arloan jardun zuen. Dantza irakaslea eta Jasokunde abesbatza-

70eko eta 80ko hamarkadetan makina bat auresku txapelketa irabazi zituen

Mallabiko baserrietan gordetako garai bateko lanabes eta tresnak jaso zituen liburu batean

ren sortzailea izan zen. Durangaldeko kulturgintzan oso pertsona maitatua izan zen Txiflis.

Mallabiko ondarea

Mallabiko baserrietan gordeta egon diren garai bateko lanabes eta tresnak jaso zituen *Baserriko lanabesak, tresnak eta trepetxuek*. Iragandako bizimodu baten lekuko liburuan. Justo Azagirre, Pello Mugarza eta Jesus Mari Uribelarrea aritu ziren lan horretan, eta Gerediaga elkarteagaz elkarlanean kaleratu zuten 2016an.



Kupela taldearen eskutik, erromeria egongo da Erreka kaleko jaietan

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Pintxopoteagaz eman diete hasiera Erreka kaleko jaiei, eta jai giroa da nagusi Elorrioren. Hainbat ekintza antolatu dituzte asteburu osorako. Gaur, esaterako, Pirritx eta Porrotx pailazoaren saioa eta txupinazo morea izango dira, besteak beste. Gauean, Facta eta Perlata taldeen kontzertuak egongo dira.

Zapatuan, 19:30ean, Kupela taldeak alaituko du giroa, eta Gaztetxean Trini Fox, Xatiro eta Denjah_Man taldeen kontzertuak egongo dira.

Domekan emango diete amaiera Erreka Kaleko jaiei. 10:00etan, 3R azoka egongo da plazan eta, 13:00etan, pilota partiduak egongo dira plazako frontoian.



'Txiflis', beheko lerroan lehenengoa eskumatik.

Tellituko aparkalekuan 17 etxebizitza eraikitzeke hasiberri dituzten lanek urte bi inguru iraungo dute

2007an enpresa eraikitzaileak eta Iurretako Udalak hitzarmena adostu zutenetik, aparkaleku modura erabili da lursail hori

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Hasi dira Tellitun 17 etxebizitza eta 19 garaje eraikitzen. Urte bi inguru iraungo dute Trafikoa Arautzeko Ordenantzaren (TAO) berrantolatu

tela, 2007an enpresa eraikitzaileak eta Iurretako Udalak hitzarmena adostu zutenetik. Martxo amaieran hustu zuten aparkalekua, eta udalak enpresa eraikitzailearen esku utzi zuen lursaila.

Herrigunean zegoen aparkalekua galdu arren, egitasmo "garantzitsua" dela aitortu du Iñaki Totorikaguena alkateak: "Urte asko dituen egitasmoa da eta inportantea da garatzen joatea". Gaineratu

duenez, "bagegien behin-behineko aparkalekua zela hori. Horren aurrean, Bideondoko aparkalekua egokitu dugu eta egoiliarrentzat aparkalekuak gehitu ditugu herriko beste toki batzuetan".

Martxo amaieran hustu zuten aparkalekua, eta udalak enpresa eraikitzailearen esku utzi zuen lursaila

keta eragin zuten lan hauek. Tellitun 75 bat aparkaleku egon dira egoiliarrentzat, eta beste batzuk egokitu dituzte herriko beste leku batzuetan.

Hamar urtetik gora dira lursail hori aparkaleku modura erabili du-



Tellitun 75 aparkaleku inguru egon dira egoiliarrentzat, eta beste batzuk egokitu dituzte herriko beste toki batzuetan.

Euskarazko kultur ekoizpenak bultzatzeko dirulaguntzak Berrizen

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herrian euskara sustatu eta herritarren euskarazko kultur ekoizpenei bultzada bat eman guran, Berrizko Udalak dirulaguntzak emango ditu beste urte batez. 2014az geroztik ematen duten laguntza honek berriztarren euskarazko sorkuntzei bultzada bat ematea eta laguntzen den kultur ekoizpen horrek herrian bertan eragitea du helburu.

Prozedurari dagokionez, interesdunek euren lanak aurkeztu beharko dituzte, eta horren ostean izango dute aukera laguntza jasotzeko.

Iaz, esaterako, kantu tradizionalak genero ikuspegitik lantzen dituen "hator neska-mutil etxera" lana lagundu zuen diruz Berrizko Udalak.


Hauteskundeak

Ane Abanzabalegi da EH Bilduren Amankomunazgorako hautagaia

Iurretan osatu dute zerrenda, eta Abadiñon gaur egingo dute aurkezpena

DURANGALDEA • MARKEL ONANDIA

EH Bilduk Amankomunazgoa gobernatzen segitu gura du, eta Ane Abanzabalegi izango da bere hautagaia. "Gure kudeaketa EH Bilduren hiru balio nagusietan oinarrituko da aurrerantzean ere: kudeaketa garbia, gardena eta herritarrona", adierazi zuen Gerediagako foru zelaian eginiko ekitaldian. Bidegorria sustatzea, zientzia parkea garatzea, jantokiak bertako produktuekin

hornitzeko proiektua abiatzea, gizarte zerbitzuen kartera osatzea eta turismo jasangarrirako plana sortzea proposatu zituen.

Bestalde, Iurretako EH Bilduk aurkeztu du zerrenda. "Esperientzia eta ilusioa" batuz herritarrekin lan egiten jarraitu gura dutela adierazi dute. Abadiñon gaur aurkeztuko dute zerrenda, Traña-Matienan, 19:00etan. Durangon, lokala inauguratuko dute Baurenkalean, gaur, 20:30ean.



Abanzabalegi eta EH Bilduren eskualdeko alkategaiak, domekan, Gerediagan.



Iurretako EH Bilduren zerrenda osatzen dutenak, Liher Aiartzaguena alkategaiagaz.



EAJk Durangon eginiko ekitaldiaren irudia.



Elorriko Batzoki aurrean egin zuten ekitaldia.



Abadiñoko EAJko kideak.

EAJk Durangoko, Elorriko eta Abadiñoko zerrendak aurkeztu ditu

Elkororibek, Mujikak eta Garaizabalek proposamen nagusien berri eman dute

DURANGALDEA • M.Z. / M.O.

EAJk Durangoko, Elorriko eta Abadiñoko zerrendak aurkeztu ditu. Durangon, jeltzaleen proposamen nagusien berri eman zuen Mireia Elkororibe alkategaiak eguen iluntzean. Landako Gunea sustatzea, Ezkurdiko parkea birgaitzea, bidegorri sarea indartzea, merkatu plazan ostalaritza gune bat sortzea... Ekimenok 2030erako ikuspegiaren diseinatu dituzte. "Denon artean

Durango hobe bat" lortzea dute helburu alkategai jeltzalearen esanetan.

Bestalde, Joseba Mujika Elorriko EAJko zerrendaburuak sozialki eta ekonomikoki "indartsuagoa" den herri bat eraiki gura dutela adierazi zuen eguazteneko ekitaldian.

Abadiñoko EAJk lantalde "eraberritua eta anitza" aurkeztu du, Mikel Garaizabal alkategaiaren hitzetan "ilusioa eta konpromisoa" uztartzen dituen.

PSE-EE alderdiak Durangoko, Berrizko, Iurretako eta Zornotzako alkategaiak aurkeztu ditu asteon

Ahaldun nagusi izateko hautagaia Teresa Laespada izango da, egungo enplegu diputatua



Sozialistek Gerediagako foru zelaian egin zuten aurkezpena, eguaztenean.

DURANGALDEA • M.O.

PSE-EEren Durangoko zerrendaburua Jessica Ruiz izango zela iragarrita zegoen, eta eguaztenean beste hautagai batzuen aurkezpena egin zuten Gerediagan. Alicia Hernandez izango da alkategaia Zornotzan, Marian Muñoz Iurretan eta Carmen Marco Berrizen. Elorriko, Zaldibarren eta Mallabian ere parte hartuko dute, oraindik zerrendaburu berri eman ez arren; Abadiñon ez dute argi zerrenda aurkeztuko duten.

Hernandezek eta Muñozek errepikatu egingo dute -iurretarrak 32 urte daramatza zinegotzi lez-, eta Marcosek legegaldi erdian hartutako ardurari eutsiko dio -Francisco del Pinok dimittitu egin zuen eraso sexista baten salaketa jaso ostean-.

Ahaldun nagusi izateko hautagaia Teresa Laespada izango da, egungo enplegu diputatua. Hain zuzen, legegaldian enplegu arloko laguntzetan Durangaldean 2 milioi euro inbertitu direla azpimarra-

Alicia Hernandez izango da alkategaia Zornotzan, Marian Muñoz Iurretan eta Carmen Marco Berrizen

tu du. "120 enpresa sortzeko eta gazteen kontratazioa sustatzeko" izan dira laguntza horiek. Bestalde, Durangaldeko barrutiko hautagaia Francisco Fernandez galdakoztarra izango da.



Hareek denporak!

Bertso eskoletatik jaiotako bertsolari gazteen belaunaldia

Durungaldeko taldeak irabazi zuen, joan zen astean, Bertsolari Gazteen XXVII. BBK sariketa Bilbon jokaturako finalean. Durungaldeak harrobi ona eduki du 80ko hamarkadan bertso eskolak sortu zirenetik.

Bertsolari gazteen lehen belaunaldi haren argazkiak topatu ditugu *Eraz* aldizkariko artxi-boan, 1995eko martxoan BBK sariketan parte hartu zutenena. Kronikaren arabera, Agurtzane

Elorriagak, Alaitz Areitiok –gaur egun Frantzia dispertsatuta–, Anartz Aranguenak, Mikel Urdangarinek, Beñat Ormaetxeak eta Beñat Gaztelu-urrutiak kantatu zuten Busturialdearen aurkako finalean. Txapelketan beste batzuek ere parte hartu zuten; besteak beste, bigarren argazkian ageri diren Iurretako bertso eskolako Eneko Abasolok, Hodei Zenikaonandiak eta Eunate Zarrabeitiak. **M.O.**

Durungaldea astean

Zornotzan Zubipunteko jolasgunea handitu eta kirol kantxa jarri dute

Zornotza | Zubipunte auzoko plazan kirol kantxa jarri du udalak, eta futbolearen, saskibaloian, eskubaloian, hockeyan, boleibolean, badmintonean eta tenisean aritzeko aukera eskainiko du.

Eguraldi txarrari aurre egiteko gai diren kalitate handiko material birziklatuekin eraiki da pista, udalak ohar batean azaldu duenez. 12 metroko zabalera, 24 metroko luzera eta belar artifiziala ditu. Proiektu honen aurrekontua 55.000 eurokoa izan da.

Garagardoa etxean nola egin daitekeen ikasteko tailerra egingo dute Mañarian

Mañaria | Maiatzaren 5ean, etxean garagardoa egiten ikasteko tailerra egingo dute Mañarian, Garai Brewing Companyk eta udalak antolatuta. Tailerrean parte hartu gura dutenek izena eman beharko dute aurrez, udaletxean edo liburutegian, euro biren truke. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, izen-ematea apirilaren 29a baino lehen egin beharko da.

Atxondoko Marixurrikeri aisialdi elkarteak udalekuak antolatu ditu gaztetxoentzat

Atxondo | Marixurrikeri udalekuak antolatu ditu haur hezkuntzatik aurrerako umeentzat. Uztailaren 1etik 19ra bitartean, hainbat ekintzaz gozatzeko aukera izango dute gaztetxoek: irteerak igerilekura eta ur txorroetara, tailerrak, zinema, ekintza bereziak, azken eguneko jaia eta abar. Gainera, asteka izena emateko aukera egongo dela jakitera eman dute elkarteak kideek.



Iurretako Zaldai Mendi Taldearen 10. urteurrena ospatzeko, argazki lehiaketa antolatu dute

Elorrio | Iurretako mendi taldearen 10. urteurrenako ekintzen barruan, argazki lehiaketa jarri dute martxan. 2019an ateratako argazki originalak aurkeztu ahalko dira, azaroaren 24a baino lehenago. Gehienez

hiru argazki aurkeztu ditzake parte-hartzaile bakoitzak.

Argazkiak zaldai@hotmail.com helbide elektronikora bidali behar dira, honako datuak gehituta: izen-abizenak, herria, telefonoa, helbide elektronikoa

eta argazkiak non eta noiz atera diren.

Sari banaketa Iurretako III. Mendi Astearen barruan egingo da. Irabazleak 150 euro jasoko ditu, bigarrenak 100 euro eta hirugarrenak 50 euro.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



clínica dental hartz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RPS: 145-13

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#nobedadeak



HELDUENTZAT
BASA
Miren Amuriza
2019



UME ETA GAZTEENTZAT
KORNELIO
Leo Lionni
2019



MUSIKA
HEZURREN AZPIAN
Maita Larburu
2019



‘Pinotxo’

ANTZERKIA

DURANGO : Apirilak 14

Emanaldi bi eskainiko dituzte

Carlo Collodiren ipuin klasikoa abiapuntuzat hartuta, *Pinotxo* antzezlanaren taularatuko du Glu Glu taldeak, domekan, San Agustin kulturgunean. Emanaldi bi egingo dituzte gaine-

ra, obraren iragarpenak izan duen harrera ikusita. Hartara, 12:30etan eta 18:00etan antzeztuko dute familia osoari zuzendutako obra, dantza eta musika ardatz dituen.



Hezurbeltzak taldea, gaur, Plateruenean

MUSIKA | Ibilbide luzeko eta nortasun eta izen handiko hiru artista batu dituen proiektua da Hezurbeltzak. Zuzeneko emanaldietan musika gaindituz unibertso propioa sortzen duen taldea osatzen dute Jon Maiak, Gorka

Hermosak eta Pittik. Eszenatorkietan ohikoa ez den eskaintza berezia da eurena, eta, gaur, 22:00etan, Plateruena kafe antzokian joko dute.

Kantu eta testuetan emigratzioa, gizarteko pertsonaia baz-

tertuak eta horien inguruko istorioak plazaratzen dituzte; besteak beste, poetika, kritika, umorea eta edertasuna uztartuz. Atrezzo eta giro bakar baten barruan aurkezten dituzte istorio horiek.

Jon Maia bertsolaria da taldeko abeslaria eta letra egilea; Gorka Hermosa, akordeoilaria; eta Pitti, gitarrista. Hirurak esperientzia handiko musikariak dira.

Apirilaren 12an

ABADIÑO ikusketa
Urkiolako zerua gaez ikusteko aukera,
Betelguese Astronomia Elkarteko Aitor Acasusok gidatuta. 8 urtetik gorakoentzat (gaztelaniaz). Informazioa: urkiola.naturala@bizkaia.eus / 94 681 41 55)

BERRIZ antzerkia
‘Limbo planeta’ (Dejabu Panpin Laborategia),
18:15ean, Kultur Etxean.

DURANGO ipuin saioa
‘Berba kateatuak’ ipuin kontaketa saioa Dorleta Kortazarren eskutik,
19:00etan, Bizenta Mogel liburutegian. Hitzez eta Hotsez egitasmoa.

ELORRIO jaiak
Txupinazo morea,
19:30ean, plazan.
Kontzertua: Facta + Perlata, 23:00etan, plazan. Gaztetxean, 23:00etan, **Etxeko Dj**-ak.

IURRETA ipuinak
Amaia Elizagoien eta Irati Zelestino,
bibliotekan: 17:30ean (3-4 urte, heldu bategaz) eta 18:00etan (5 urtetik gora).

IURRETA ipuinak
‘Cuanto cuento’ (Andres Cortés), kultur etxean, 19:00etan. Helduentzat.

Apirilaren 13an

ELORRIO erromeria
Kupela taldea, 19:30etik 21:00etara; 23:00etan berriro hasiko dira. Plazan.
Kontzertua: Trini Fox + Xatiro + Denjah Man, 23:00etan, Gaztetxean. Erreka kaleko jaiak.

GARAI ibilbidea
Heriotza-errituak ezagutzeko ibilbidea, 19:30ean. Elkargunea, lurretako Aita San Migel eliza osteko aparkalekuan egingo dute (autobus zerbitzua egongo da). Izena emateko: 08:00etatik 15:00etara. Apirilaren 13an ere egingo dute.

Hontza Museoak tailerrak antolatu ditu Aste Santurako

TAILERRAK | Hontza Museoak tailerrak antolatu ditu Aste Santurako, Durangaldeko 5 eta 10 urte bitarteko gazte-txoei zuzendutakoak. Etxeko txikienek eskulanak egiteko aukera izango dute. Horrez gainera, jolasak eta ipuin txokoa ere eskainiko dituzte,

Hontza Museoako arduradunek azaldu dutenez.

Apirilaren 25ean eta 26an izango dira tailerrak, 10:00etatik 13:30era. Izena emateko, mezu bat bidali behar da info@hontzamusoea.es posta elektronikora. 10 euro ordaindu behar dira tailerretan parte hartzeko.



ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Geppetto bakarrik bizi den zurgin zaharra da. Halako batean, egur zati magikoa helduko zaio, eta horregaz zuzerzko txotxongilo ederra sortuko du. Pinotxo izena jarriko dio.

OTXANDIO udaberri jaiak
Herriko umeen pilota partiduak, 16:00etan.
Puzgarriak, 17:30etik 20:30era.
Elektrotxufila taldeagaz musika, 23:30ean. Plazan.

Apirilaren 14an

ELORRIO erakusketa
'Elorrioko Gerra Zibilaren Memoria', Iturri kultur etxean.

ELORRIO azoka
3R Azoka, 10:00etan, plazan. **Pilota partiduak**, 13:00etan, frontoian. Erreka kaleko jaiak.

Apirilaren 17an

ABADIÑO tailerra
Poltsa tailerra, 17:30etik 19:00etara, Errota kultur etxean. Izena emateko apirilaren 12ra arte. (2005-2008 bitartean jaiotakoentzat). Katalamixonek antolatuta: 654 78 97 09 / katalamixon@gmail.com

DURANGO antzerkia
'Y me morí. Cabaret Mexicano' (Liquido Teatro & Duo Facil), 22:00etan, San Agustin kulturgunean. TopaKlown.

Apirilaren 18an

DURANGO musika
Dj Okle, 22:00etan, Txoria Nuen Maite tabernan.

DURANGO antzerkia
'Las polis' (Duo Las Polis), 18:00etan, Aurora Abasolo parkean.
'The tapas' (Carnage Productions), 19:30ean, Ezkurdi plazan.
'Italino Grand Hotel' (Companyia La Tal), 22:00etan, San Agustin kulturgunean. TopaKlown.

Apirilaren 19an

DURANGO antzerkia
'Lubbert' (Inda Pereda), 20:00etan, San Agustinen.
'Esto no me lo esperaba' (Zanguango Teatro), 22:00etan. TopaKlown.

Apirilaren 20an

DURANGO antzerkia
'Benditas, todo viene del cielo' (El mono habitado), 20:00etan, San Agustin kulturgunean.
Klown Komban, 22:00etan. TopaKlown.

Apirilaren 21ean

DURANGO erakustaldia
Topaklown ikastaroen erakustaldia, 20:30ean, San Agustin kulturgunean (sarrera doan). TopaKlown.

Apirilaren 23ra arte

DURANGO erakusketa
'Iruki izoztuak vs izoztutako oroimenak', Andra Mari inguruan. 'Martxoak 31. Durangoko Bonbardatzeak Oroituz. 1937-2019'. Gerediagak antolatuta.

Apirileko agenda		Iurreta Ereizateko Udala
13	"KORRIK EGUNA" 12:00 Plazan 14:00 Bertso poteoa eta kantu bazkaria 19:00 Korrikan "GOIURIKO AMA NAGUSIEN ELKARTEA" 19:00 Meza hildako bazkideen alde	
15	"ANDEREBIDE GOIURIA KULTUR GUNEA" 18:30 Zoru pelbikoaren indartzea	
15/17	"ASTE SANTUKO TAILERRAK" 10:00-13:00 Eskulan tailerrak eta teknologia eta sormen tailerra	
23	"GOIURIKO AMA NAGUSIEN ELKARTEA" Izen-ematea: apirilaren 23tik maiatzaren 21era Maiatzak 25: HARO-RA TXANGOIA Informazio gehiago: Nagusien Etxea / Tel.: 94 681 81 76	
24	"SAN MARKO JAIK 2019 OROMIÑO" Iluntzean Donien Atxa jasotzea, eta ondoren bakailao errema emango diete parte-hartzaileei Ondoren, Igel txapelketa	
25	"SAN MARKO EGUNA 2019 OROMIÑO" 12:00 Meza Jarraian, herri bazkaria. Eman izena jai batzordean. 17:00 Briska txapelketa. Bikote bakoitzak 6€	



Apirilaren 28ra arte

DURANGO erakusketa
'Argiak eta itzalak'. Acuzena Fernandez lanak. Durangoko Arte eta Historia Musean.

DURANGO erakusketa
'At Ente' erakusketa kolektiboa: Irazu Antona, Mariana Unda, Eztizen La Cruz, Leire Muñoz, Clara Elizondo eta Andere Etxegarai. Durangoko Arte eta Historia Musean.

Maiatzaren 31ra arte

DURANGO lehiaketa
Hizkuntza Eskola Ofizialeko (HEO) 25. urteurrena ospatzeko kartel lehiaketa. A3 tamainako kopia bi aurkeztu behar dira, eta PDF artxiboa, HEOko idazkaritzan (Zubiaurre kalea 1) edo honako helbide elektronikora bidalita: 015054aa@hezkuntza.net.

Zinea

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Dolor y Gloria**
barikua 12: 22:00
domeka 14: 19:00

:: Durango ZUGAZA

• **Soinujolearen semea**
barikua 12: 19:30/22:00
zapetua 13: 19:30/22:30
domeka 14: 19:00/21:15
astelehena 15: 18:30/21:00
martitzena 16: 20:00
eguaztena 17: 20:00

• **Lo dejo cuando quiera**
barikua 12: 19:30/22:00
zapetua 13: 18:00/20:15/22:30
domeka 14: 16:30/19:00/21:15
astelehena 15: 18:30/21:00
martitzena 16: 20:00
eguaztena 17: 20:00

• **El día que vendrá**
barikua 12: 19:30/22:00
zapetua 13: 18:00/20:15/22:30
domeka 14: 16:30/19:00/21:15
astelehena 15: 18:30/21:00
martitzena 16: 20:00
eguaztena 17: 20:00

• **Dumbo**
zapetua 13: 17:00
domeka 14: 16:30

:: Elorrio ARRIOLA

• **¿Podrás perdonarme algún día?**
zapetua 13: 22:00
domeka 14: 20:00
astelehena 15: 20:00

• **Mirai, mi hermana pequeña**
domeka 14: 17:00

:: Zornotza ARETOA

• **Soinujolearen semea**
barikua 12: 20:15
zapetua 13: 19:30 / 22:00
domeka 14: 20:00
astelehena 15: 20:15

“Bost eguneko grabaketan, Lubis pertsonaia sakon eta sineskor bat sortzea izan da zailena”

Gaur, apirilak 12, helduko da zinema-aretoetara 'Soinujolearen Semea' pelikula; Eneko Sagardoy aktorea Lubisen azalean sartu da film honetan



Eneko Sagardoy Mujika

Aktorea
Durango | 1994

'Patria' telesailaren filmazioan zabilta orain. Zein da zure papera? Nolako esperientzia izaten ari da?

Orain hiru astetik nabil grabatzen *Patria*, eta abuztura arte ibiliko naiz honegaz. Esperientzia bikaina izaten ari da, gustatzen zaidana egiten nabilelako eta talde bikain batez nabilelako. Igartzen

“**Atxagaren lan batean oinarrituta egotea berme bat da, eta interesa pizten du euskaldunen artean**”

da proiektu oso handia dela, eta jendea dena emanda dago. Gorkaren paperean sartu naiz. Jose Mari etakidearen anaia da Gorka. Anaia lotsatia da Gorka, gatazka politikoari buruz gutxi jakin gura duena eta beste gatazka pertsonalago batzuetan sartuta dabilena. Horregatik, urruntzea erabakiko du.

Baduzu beste proiekturik esku artean?

Obabakoak lanagaz Stuttgartera (Alemania) joango gara, ekain amaieran, eta abuztuan pelikula bat grabatuko dut Katalunian. Irailean eta urrian beste pelikula bat grabatuko dut, Nafarroan.

Eneko Sagardoy, 'Soinujolearen Semea' pelikularen grabaketan. ABRA PROD.

ZINEA • ARITZ MALDONADO

2018an Goya saria irabazi ostean, lanean jarraitu du Eneko Sagardoy aktore durangarrak. Zinea eta antzerkia egin ditu, eta etorkizunean ere zenbait formatu partekatuko ditu. 'Patria'-ren grabaketan murgildurik dago orain.

'Soinujolearen Semea' aste honetan helduko da zinema-aretoetara. Zelako harrera izango duela uste duzu?

Euskal Herrian oso harrera ona edukiko duen pelikula izango dela esango nuke. Bernarndo Atxagaren nobela batean oinarrituta egoteak berme bat ematen dio beti. Horrez gainera, Atxagaren lanek beti pizten dute interes bat, euskaldunengan gutxienez.

Ezagutzen zenuen nobela? Irakurrita zeneukan?

Ezagutzen nuen nobela. Ikastolan irakurri nuen, baina, horrelakoetan gertatzen den bezala, berrirakurtzerakoan eta gidoia irakurtzerakoan, beste dimentsio bat hartzen du istorioak. Denborak aurrera egin ahala liburuek berdin

jarraitzen dute, baina gu aldatu egiten gara eta urteen poderioz ezberdin ikusten dituzu gauzak. Orduan, kontzienteago izaten zara zer suposatzen duen liburu honek.

Lubisen azalean sartzekoan, zer izan da gehien kostatu zaizuna?

Zaldian ibiltzen ikastea kostatu zait gehien, ez nekien eta. Baina, gero, oso dibertigarria izan da. Egia esan, zaldirik geldoena eman zidaten, ez zuelako bizkor ibili behar. Lubis beste pertsonaiek osatzen duten pertsonaia da

“**'Patria' telesailaren grabaketan egongo naiz abuztura arte; igartzen da proiektu handia dela**”

gehien bat. Airean dago bere izena, protagonisten elkarrizketetan. Paper txikia izan da, baina, gutxi agertu arren, pelikulan zehar nahiko presentzia du. Nik bost egunetan parte hartu nuen grabaketan, eta bost egun horietan pertsonaia sakon eta sineskor bat sortzea izan zen zailena, ez da eta erraza. Hori izan da erronkarik handiena, nahiz eta gutxitan agertu: sakonera duen pertsonaia bat eraikitzea.

Bestalde, 'Heriotza Bikoitza' antzez-lana lozorroan sartu duzue. Itzartuko da? Zelako bidaia izan da?

Antzerkian izan dudana esperientziarik ederrena izan da niretzat, zerotik hasitako lana izan delako alde batetik, eta lan kolektiboa bestetik. Oso geurea den zerbait sortzen ibiltzearen sentsazioa eduki dut. Oso gauza pertsonala izan da, oso sentipen pertsonalak sortu dizkit, asko biluztu gara eta hori jendaurrean erakustea eta erantzuna aurkitzea oso polita izan da. Uste dut gauzak hasi eta amaitu egin behar direla. Printzi-

pioz lozorroan sartu dugu, baina auskalo esnatuko ote den. Ez da erraz egon zirkuitua denbora honetan, eta gura baino emanaldi gutxiago egin ditugu. Hala ere, nire lagun guztiek esan didate ikusi nauten antzerkirik onena dela eta gehien gustatu zaien lana dela.



'Heriotza Bikoitza'

Marcelo Katz argentinarrek ikastaroa eskainiko du Topaklown topaketetan; Clown&Berba berbaldian ere parte hartuko du

Apirilaren 17tik 21era bitartean izango da Durangoko klown topaketa; salgai daude emanaldietarako sarrerak

DURANGO • ARITZ MALDONADO

Azken urteetako formatu bera izango du Durangoko aurtengo Topaklown klown topaketak. Alde batetik, bederatzi ikastaro eskainiko dituzte klown formakuntzarako. Besteak beste, Marcelo Katz argentinarrek eskainiko du klasea; Katz erreferentea da klown munduan, izan ere, 300 ikasleko eskola du Buenos Airesen. "Klown garaikidearen formakuntza integrala erakusten da topaketa hauetan, baina ez hori bakarrik. Klown teknikez gainera, bestelakoak ere irakasten dira, eta horixe da jendeak errepikatzen gakoetako bat", azaldu du Gorka Ganso Topaklowneko zuzendari artistikoak. Marcelo Katzek berak apirilaren 18an Clown&Berba berbaldian parte hartuko du, Irrikiklown eta Kulunkako taldeetako lagunekin batera.

Espainiar estatuan erreferentziatzeko bilakatu da Topaklown, eta klown zaleen mapan jarri du Durango. "Ikastaroetarako izen-ematearen %80 ordu laurdenean bete

zen", arrazoitu du Arantza Arrazola San Agustineko kulturguneko koordinatzaileak. Guztira, 190 lagunek parte hartuko dute ikastaroetan, 155ek ikasle moduan, eta gainontzekoek entzule moduan. Euskal Herriko ikasleez gainera, besteak beste Portugalgo, Espainiako eta Austriako lagunak ere etorriko dira egun horietan. "Topaketen formatua egokia da, jendea ezagutu eta ideiak partekatzeko tamaina perfektua du", gaineratu du.

Lehenbizikoz Euskal Herrian

Emanaldiei dagokienez, *Y me mori* kabaret mexikarragaz hasiko da Topaklown, apirilaren 17an. LíquidoTeatro&DuoFácil konpainiaren ikuskizuna Euskal Herrian ikusleko lehenbiziko aukera izango da hau. Ez da kasu bakarra izango. La Tal (Herrialde Katalanetatik) eta Carnage (Frantziatik) konpainiek *The Tapas* eta *Italino Grands Hotel* ikuskizunak lehenbizikoz antzetzuko dituzte Euskal Herrian. Zanguando konpainia ere egongo da to-



'Y me mori' kabaret mexikarra.

Ikuskizun guztietara joan ahal izateko bonuak 30 euroan salduko dira San Agustin kulturgunean

pakketetan, ia urtero legez. Oraingo honetan, *Esto no me lo esperaba* antzezlan aurkeztuko dute.

2019ko edizio honetako beste nobedadeetako bat Klown Kom- bat delakoa izango da. Musikan, jam saioetan egiten den antzera, inprobisatu egingo dute klownek,

irizpide batzuen barruan. Publikoa izango da epailea. "Zorakeria bat da, baina horrelakoak gara gu", laburtu du barreka Gansok. Emanaldiak San Agustinen, Ezkurdin eta Aurora Abasolo parkean izango dira. Gainera, San Agustinen Txelu Angoitiaren argazkiak egongo dira.

Manex Iturrietak Euskal Herriko XIV. Txistulari gazteen txapelketa irabazi du

MUSIKA • A.M.

Iturrieta txikien mailan lehiatu zen. Guztira, Durangoko Bartolome Ertzilla Musika Eskola eta Kontserbatorioko bost ikasle eta talde batek parte hartu zuten finalean. Iturrietagaz batera, Irati Axkoetak ere jo zuen txistua txikien mailan; maila honetan, 9 eta 12 urte bitarteko gazteek parte hartzen dute. Gazteen mailan, Mikel Carrillok, Mikel Gonzalezek eta Amaia Sanzek jo zuten. 13 urtetik 16ra bitartekoak lehiatzen dira bertan. Bestalde, gazteen mailako taldean Haritz

Bartolome Ertzillako bost ikasle parte hartu zuten Hernanin jokatuako txapelketan

Hamarkada batean, musika eskolako kideek zortzi bider lortu dute lehen saria, hainbat mailatan

Gonzalezek jo zuen. 40 gaztek baino gehiagok parte hartu zuten Hernanin jokatuako lehiaketan.

Hamarkada bat parte hartzen

Durangoko Bartolome Ertzilla Musika Eskola eta Kontserbatorioak hamar urte daramatza guztira Euskal Herriko Txistulari gazteen txapelketan parte hartzen, eta zortzi ediziotan lehen sariak irabazi ditu, hainbat mailatan. Beste hirutan, bigarren eta hirugarren sariak lortu dituzte kontserbatorioko ikasleek.



Manex Iturrieta.



urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

Zure iragarkia jarri nahi duzu?

publizitatea@anboto.org
94 621 79 02

anboto komunikabideak



Beristain
NEKAZAL TRESNAK

OIDOR BERRIOZABALBEITIA, 14 - 48230 ELORRIO
946 231 803 info@beristain.eus

www.beristain.eus

120 lagun inguruko lantalde gaztetuago bategaz aurkeztuko dute Durangoko Pasioaren 26. edizioa

Apirilaren 17an, 18an eta 19an egingo dira saioak; Egoitz Iraurgi eta Susana Alarcón izango dira Jesus eta Maria

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

Juan de Iciar kultur elkarteko ki-deek egindako laguntza eskaerak oihartzuna eduki du, eta aurren ere egingo da Durangoko Pasioa. 26. edizioa izango da aurtengoa.

Gako nagusi bi ditu aurtengo Pasioak. Alde batetik, adinaren batez besteari begiratuta, partaideak gazteagoak dira. "Urte zaila izan da pertsoniak aukeratzeko", azaldu du Juanjo Etxarte zuzendariak. Egoitz Iraurgigaz batera egin ditu zuzendari lanak. Hain zuzen ere, Iraurgi Jesusen azalean sartuko da antzezlanean. Beste protagonista nagusia, Maria, Susana Alarconek interpretatuko du. Iraurgik, baina, euren paperei garrantzia kendu eta taldean jarri du indargunea. "Jesusen pertsonaia ez da istorioko garrantzitsuena. Atzean herria ez balego, 50 lagun horiek ez baleude, ezingo genuen antzezlan aurrera ateratu". Guztira, 120 bat lagunek parte hartuko dute emanaldietan, eta belaunaldi berriei esker, partaideen adinaren batez bestea 30 urtekoa da. Alarconek, bestalde,

aurreko belaunaldien lana eskertu du: "Aurretik Mariaren papera egin dutenek asko lagundu didate". Ekitaldiak 50.000 euroko aurrekontua du; sarrerak sei euroan daude salgai, Arco tabernan.

Ekitaldiak 50.000 euroko aurrekontua du; sarrerak sei euroan daude salgai, Arco tabernan

Streaming bidez

Bigarren nobedade nagusia azken entsegua streaming bidez emango dela da; apirilaren 16an izango da hori. Emanaldiak 21:00etan hasiko dira.



Juanjo Etxarte, Egoitz Iraurgi, Aitziber Irigoras, Susana Alarcón eta Esti San Antón

Gai librea

José Julián Bakedano Zinemagilea



José Bergamín, olerkaria Euskadin (II)

1963an, Fragak erbesteratze-
ra behartu zuen, meatzari
asturiarren aldeko manifestu
bat sinatzeagatik. 1970ean
itzuli zen Madrilera behin be-
tiko. Gerora, Trantsizioaren
prozesuan disidente bilakatu
zen eta *Error Monarquía* argi-
taratu zuen. "Nire mundua
ez da erresuma honetakoa",
esaten zuen. Bere bizitzaren
amaiera aldera, euskal inde-
pendentisten alde egin zuen
Herri Batasuna koalizioan.
Hondarribian lurperatua
izatea izan zen bere azken
erabakia, "nire hezurak Es-
painiako lurri ez emateko",
esan zuenez. 33 saiakera, 16
antzezlan eta 9 poesia liburu-
ki argitaratu zituen. Bere lana
ezagutzeko, Xabier Sánchez
Erausquinen *José Bergamín. Ángel rebelde* (Foca, 2007) eta Nahiel Dennis-en *Bergamín esencial* (Turner, 2005) irakurri behar dira. Intelektual eta lagun talde batek omenaldi bat egin zion 2018an, bere hilobiaren aurrean. Hilobia bandera errepublikarrarekin eta ikurrinarekin estali zuten, eta Internazionala eta Euzko Gudariak abestu zituzten. Arangurenen esanetan, XX. mendeko intelektualik handienetzat hartu zuten. Garcia Lorca, Juan Ramón Jimenez, Unamuno, Malraux eta Buñuel lagun-min izan zituen. Hain justu ere, Buñuelen *El fantasma de la libertad* (1974) pelikulan fusilatu egin zuten (ez benetan) Buñuelekin eta Silberman ekoizlearekin batera. Olerki batek bere ideologia laburbiltzen du: *Bakardadea ez da arimaren bakardadea, /gorputzaren bakardadea da, /baina bera barik arimak ez luke/ez bizitzarik ez pentsamendurik.*

*Erredakzioan itzulita



Limbo Planeta. Dejabu Panpin Laborategia.

'Limbo Planeta' antzezlan aurkeztuko dute Berrizen

Barikuan, apirilaren 12an, Berrizko Kultur Etxean eskainiko du Dejabu Panpin Laborategiak antzezlan, 18:15ean

ANTZERKIA • KAROLINA SUAREZ

Zortzi urteko neska da Numa, aparteko leku batean bizi dena. Bakarrik bizitzera ohituta dago protagonista eta hondamendia-
ren erdian bere bizilekua sortzea lortu du. Tarteka jasaten dituen erasoeri aurre egiten ikusi ahalko dugu antzezlanean, Miren Alkala eta Alvaro Garayalde aktoreen eskutik.

Dejabu Panpin Laborategiak sortutako lana da *Limbo Planeta*. Antzerki testuala eta txotxongiloak uztartzen dituen euskal konpainia da. Konpainiaren obrek izaera minimalista izan ohi dute.

Euskal Herriaren historian oinarritutako narratibak dira ardatza, eta horrela sortu dute antzezlan Aina Gurrutxaga gidolariak eta Urko Redondo zuzendariak.

Smurfit Kappa
Central Forestal

50 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN

Smurfit Kappa
Nervión

IBAIZABAL IKASTOLAN... POZIK!

Konfiantzazko irakaskuntza, emaitza bikainekin, lehenengo pertsonan



Eta gurean ere baditugu:
Errota Ostatua - Aterpetxea -
Kirolerrota - Gimnasioa



Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta profesionaltasun ziurtagiriak zerbitzuekin uztartzen dituen eremu anitza da Ibaizabal. Errealitate berezia, jardura desberdinek (gimnasioa, aterpetxea eta ostatua) bat egiten baitute eskaintza akademikoak sektorekoekin alderatuz hobeak izaten dia. 34 ikaslegaz hasi zen ikastola, eta gaur egun 300 ikasle baino gehiago ditugu. Matrikularen goranzko joera epe ertainean jarraitu egingo duela aurreikusten denez, laugarren lerroa zabaldu dugu. Honi erantzuteko, 1.000 m²ko eraikin berria inauguratu genuen 2013ko irailean.

Batxilergoa: Erabakiak hartzeko tarte hori

Erabaki garrantzitsuak hartu behar dira batxilergoan. Horregatik, batxilergoa hasten duen lehenengo egunetik, bere norantza akademikoaren gaineko kontrola ikasleak berak eraman behar duela uste dugu, erabaki garrantzitsuak autonomiaz eta heldutasunez har ditzan. Bidean, ikaslea babestuta eta indartsu sentitzeko helbururako lana egingo dugu guk, gertu gertutik. Izan ere, tematuta gaude ikaslea ondo sentitu dadin. Horretarako, ikaslearen jarraipena berezia da Ibaizabalen: irakasle guztiak tutore dira, eta bakoitzak ikasle kopuru txikia dauka. Familiek, irakasleek eta ikasleek elkarlanean funtzionatzen dute. Ondorioz, ikasle bakoitzak bere bidelagun izango den irakaslea izango du erreferentzia legez lehenengo egunetik.

Horretaz gain, ikasgaietako prozedura eta edukiak indartzeko errefortzu sistema jartzen dugu ikaslearen eskura Ibaizabalen. Errefortzu

saioak eska ditzakete, ikasturtean zehar hutsuneak osatzen joan ahal izateko.

Neurri hauek guztiak bere fruituak ematen dituzte. Urtero Ibaizabaleko asebetetze zein emaitza akademikoak sektorekoekin alderatuz hobeak izaten dia. 34 ikaslegaz hasi zen ikastola, eta gaur egun 300 ikasle baino gehiago ditugu. Matrikularen goranzko joera epe ertainean jarraitu egingo duela aurreikusten denez, laugarren lerroa zabaldu dugu. Honi erantzuteko, 1.000 m²ko eraikin berria inauguratu genuen 2013ko irailean.

Orientazioaren garrantzia

Ikasketa prozesua ikaslearengandik abiatzen da. Norberaren asmoak identifikatu eta horiek lortzeko eskuratu beharreko lanabesak izan ditzaten lan egiten uzten diegu. Eta hori guztia orientazio egoki batez gauzatzen da. Aukera akademiko zein laboralen gainean informazio osoa jasotzen dutela ziurtatuko dugu.

Horretarako, ikasle ohien eta inguruko Unibertsitateetako adituen testigantzak ekartzen ditugu. Unibertsitate eta ikastetxeetara irteerak eta aurkezpenak edo gure trebakuntza eskaintza teknikoak jartzen ditugu haien eskura. Helburua argia da: ikaslea %100ean trebatzea, hemendik ateratzean dagokion bidea ondo egin dezan. Ikasleak akademikoki zein sozialki jantzita eta kompetente prestatzea, alegia.

Lanbide heziketa arautu

Lanbide heziketaren alorrean, Haur Hezkuntzako Goi Mailako Zikloa

eskaintzen da Ibaizabalen. Ziklo honen haurtzaindegietako teknikari lana egiteko zein Unibertsitatean ikasteko aukera zabaldu du.

Ibaizabal+ elkarreagineko espazioa

Ezin dugu hezkuntza ulertu bareneko eremu isolatu modura. Hezkuntzatik abiatzen dugu gure ekarpena, baina, aldi berean, eragileak gara. Euskalgintzan, herrigintzan, kulturgintzan... euskal nortasuna oinarri izanik, mundura zabalik dagoen ikuspegi lantzen dugu. Jendartearen erroka eta ametsen parte izan nahi dugu. Ikastola soil batetik harantzago joan nahi dugu, eta gure ingurua eraldatu.

Antzerkia, mekanografia ikastaroak, Oxford azterketen eremu ofiziala, Kirolerrota gimnasioa, Errota ostatu/aterpetxea, zein bestelako eskolaz kanpokoak ere anitzak ditugu. Zentzu horretan, ezinbestekoa deritzogu ikaslea bera ere erabaki eta eztabaida guneetan egotea. Ikasle kontseiluan proposamenak egin, iritzi eta proposamenak Irakurri aldizkarian plazaratuz edo tertulia eta eztabaida foroetan parte hartuz. Ikastola auzolanean ulertzen dugu nahitaez. Beraz, gutariko bakoitzak bere ekarpena egin dezakegu Ibaizabal ikastolan. Izan ere, kooperatiba gara, gurasoek eta ikasleek zuzeneko esku hartzea dutelarik ikastolako erabaki nagusietan.

Nahi baduzu, ezagutu gaitzazu ateak irekitzeko saioetan. Bazatuz Ibaizabalera?



- Konfiantzan, ikastola -

idazkaritza@ibaizabalikastola.eus
Tel.: 946 215 877
www.ibaizabalikastola.eus

BATXILERGOA

Aurrematrikula epea:
maiatzaren 2tik 14ra
Ateak irekitzeko eguna:
apirilaren 29an, 18:00etan

HAUR HEZKUNTZAKO GOI MAILAKO ZIKLOA

Ateak irekitzeko eguna:
maiatzaren 14an, 18:00etan



Juan Luis Melendez Alberdi
Valentzia taldeko atezain ohia
Durango | 1950

“Jokalari denek bere moduan jokatzeari gura zuen Di Stefanok, baina hori ezinezkoa zen”

70eko hamarkada hasieran, Juan Luis Melendezek hiru urte eman zituen Valentzian, Alfredo Di Stefanoren aginduetara

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Valentzia futbol kluba mendeurrena ospatzen dabil aurten, eta, oraintsu, klubean ibilitako jokalariek omendu dituzte. Ekitaldian Juan Luis Melendez durangarrak ere parte hartu zuen, 1971-1974 urteen artean hantxe jokatu zuelako. Besteak beste, Errege Kopako final batean eta Europako Kopako hainbat partidutan defendatu zuen valentziarren atea.

Zelakoa izan zen jokalaria ohi izandakoak berriro ikustea?

Zoragarria! 45 urte neramatzen ikusi barik. Ez ziren denak etorri, baina asko bai. Guztira, 200 edo 300 bat jokalaria ohi batu ginela kalkulatu da. Valentzia kluba ezin hobeto portatu zen gugaz.

Oroitzapenen kaxa zabaltzea bezalakoak izan zen?

Bai horixe! Orduko denborak gogoratu genituen eta harrezkero zer egin dugun kontatu genion elkarri. Klubak kamiseta eta bufanda bana erregalatu zigun eta Legenden Partidua hasi aurretik zelaira irten ginen bakoitzaren izenak esaten zituzten bitartean.

Hiru denboraldi eman zenituen Valentzian. Zelan batu zinen bertara?

Aurretik Durangoko Kulturalean, Indautxun eta Barakaldon ibili nintzen. Orduan, Karmelo Cedrunek Barakaldoko entrenatzailean.

Karmelo aurretik ezagutzen nuen, Kulturalean berak entrenatu ninduelako. Entrenatzaile oso ona zen Barakaldorentzat. Han ibili nintzen urtean, Errege Kopako final zortzirenetara heldu ginen. Besteak beste, Elx taldea kanporatu genuen. Kanpoan jokatu genuen partiduan Alfredo Di Stefano egon zela esan zidaten. Eta, gero, Valentzia taldeak fitxatu ninduen.

Elx-eko lehia bota zizuten begia?

Cedrunek eta Di Stefanok elkarrengaz jokatu zuten Espanyol taldean, eta imajinatzen dut niri buruzko informazioa pasatuko ziotela elkarri.

Aurreko urtean Liga txapeldun izandako Valentzia handira joan zinen. Zelan egin zenuen zure tokia han?

Beste atezain bat eta biok soldaduskan egon ginen hasieran. Abelardo, orduko atezain titularra, bakarrik entrenatzen zen. Gu partiduetara joaten ginen. Carranza Torneoan jokatu nuen lehenengoz Valentziagaz. Atletico Madrilen kontra izan zen. Ligako debuta, ostera, hasierako partidua batean izan zen. Abelardo lesionatu zenean ni atera ninduten. "Zuk Karmelo Cedrunegaz moduan jokatu, berdin-berdin", esan zidan Di Stefanok debutatzera nindoanean. Hurrengo hileetan titular jokatu nuen eta taldeagaz egunero entrenatzen hasi nintzen.

“

'Zuk Karmelo Cedrunegaz moduan jokatu, berdin-berdin' esan zidan Di Stefanok debutatzera nindoanean"

—

Zeintzuk izan ziren zure boladarik luzeenak titular jokatzeko?

Lehenengo eta hirugarren denboraldikoak. Bigarrenean ez nuen apenas jokatu. Ez dakit zergatik.

Orduan, Valentziak Europako jokatzeko zuten urtero. Zuk jokatzeko zein partidua gogoratzen duzu bereziki?

Valentzia Liga irabazteko zetorrenez, lehenengo urtean Europako Kopan jokatu nuen; esaterako, Budapesteko [Hungaria] Ujpest Dozsa taldearen kontra. Talde zoragarria zuten orduan. Horren ostean, Manchester Cityren kontra aritu ginen. Partidu hartan ia dena geratu nuen, baina akats bat egin eta... akabo!

Di Stefanok ez zizun akats hori barkatu?

Uste dut ez zuela atezain izateko den ondo ulertzen. Jokatzeari uzten zion atezaina ez zen aulkian geratzen. Harmailara joaten zen segituan. Eta alderantziz ere bai. Partidu bakar bat ere ez jokatzetik jokatzera pasatu zintezkeen. Entrenatzaile arraroa zen atezainontzat.

Atletico Madrilen kontra Errege Kopako final bat jokatu zenuen.

Bai. Zoritxarrez, 2-1 galdu genuen. Final txukuna egin nuela uste dut. Normalean, talde handien kontra ibiltzen nintzen ondoen: Real Madrid, Atletico Madrid...

Valentziako etaparen ostean, Malaga joan zinen.

Bai. Juan Antonio Deusto zebilen han, Athleticen Iribarren ordezkaria izandakoa. Hura lesionatu zen partidua batean, ni sartu nintzen. Gero, titular geratu nintzen.

Zugaz, Bigarren Mailatik Lehenengo Mailara igo zen Malaga.

Horrela da, baina zati handi batean

“

Orduan, jokoa garbiagoa eta ondratuagoa zen, ez zegoen hainbeste kontaktu eta amarrukeririk”

—

ez nuen jokatu, lesio bategatik. Ondoko sate batean, baloia ukabilekin urrunduta eta atzamar lodia apurtu nuen. Orduan ez zegoen eskularrurik. Orduerdi lesionatuta jokatu behar izan nuen, aldaketak agortuta genituelako.

Atezain moduan, zeintzuk izan dira zure erreferenteak?

Iribar izan da onena eta, nire ustez, alde dezenteagaz.

Ez zinen atezain garaia. Hori arazo bat zen?

Gaur egun arazo bat izango zen, baina garai hartan, ez. Ez zegoen hainbeste kontakturik, ezta amarrukeririk ere. Jokoa askoz ere garbiagoa eta ondratuagoa zen.



1971tik 1974ra bitartean, hiru denboraldi jokatu zituen Valentzia taldeagaz.



Gremioen gida

anboto

Elektrizitatea

MARKIEGI

ARGIZTATZEN JARRAITZEN DUGU!

Tabira, 3 - 48200 Durango
Tel.: 946 203 520 - 656 793 932
E-mail: markiegi@markiegi.com
www.markiegi.com

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua

NEURRIRA EGINKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

UNAI GARAY

ITURGINTZA BEROGINTZA GASA

Instalataile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide

iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA

ITURGINTZA - GASA BEROGINTZA - AIREA MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com
692 859 779

Zubiaurre, 8 IURRETA
946 202 768
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 **ABADIÑO**
944 071 791

Zurgintza

ATERPE ARROTZAK

EGUR ERAIKUNTZAK TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



Ohiko ibilbidean Movistarreko txirrindulariak izango dira irabazteko favorito Zornotzako 65. klasikoan

Azken lau edizioak irabazi dituen Movistar UCI Pro Tour mailako talde bakarra izango da domekako lasterketan



Autzagane eta Muniketa hiru bider igoko dituzte txirrindulariek.

TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO

Movistar taldeak lau garaipen segidan daramatza Zornotzako Klasikoan, eta domeka honetan favorito nagusia izango da bosgarrena lortzeko. Bera izango da UCI Pro Tour mailako talde bakarra. Euskadi-Murias eta Caja Rural taldeak, ostera, sorpresa ematen saiatuko dira.

Domekan 09:15ean hasi eta 13:15 inguruan amaituko da lasterketa, Zornotzan. Iaz, Autzagane obrak amaituta, igoera hori berreskuratu eta ohiko ibilbidea itzuli ziren, eta aurten ere horregaz jarraituko dute: itzuli bana Durangaldetik eta Arratititik, eta beste hiru Gernika ingurutik, Autzagane eta Muniketako igogarak barne. Guztira, 171 kilometro egingo dituzte bizikleta ginean.

Taldeak ekartzea "gatx" dago

Klasikoa aurkezteko ekitaldian, 12 talde zeuden lotuta, eta beste hiru-laugar berbetan zebiltzan. Taldeak ekartzea "gero eta gatxagoa" dela azaldu zuen Iñigo Larrucea Amorebieta txirrindulari elkartearen presidentea. Normalean, Portugalgo hainbat talde ekartzen dituzte, baina astebururako lasterketa berri bat antolatuta dute han. Horren ondorioz, lasterketa bietan egoteko egitura nahikoa duten talde portugaldarrak bakarrik etorriko dira. Europako taldeak ekartzea ere ez da erraza. "Gehienek World Tourreko prezioak eskatzen dituzte etortzearen. Horrelako kantitatek ez goaz ordaintzera kontinental talde bati", argitu zuen Larruceak aurkezpenean.

Jokaldia

Kepa Arroitajaregi Egaña
Pilota teknikaria



Gazi gozoak

Pilota munduan buru-belarri sartuta gaudenok une gazi gozoak bizitzen ari garela esatea da bidezkoena, gazitik gehiago agian. Aldiz, pilota azaletik bizi duenak —eskuzko profesional maila bakarrik hartzen duenak 'pilotatza'— bizkaitarrek eta Bizkaiko pilotak osasun bikaina dutela aipatu dezake. Hala eman zuen aditzera, gainera, politikari batek ETB-1 kateko binakako final nagusiari so.

Danel Elezkano, Rezustarekin batera, txapelkun berria da binakakoan. Bejon dagiola, zorionak bene benetan! Oier Etxebarria eta Aitor Elordi ere bikain bigarren mailan, eurak ere txapelkun. Horiei ere zorionak, nola ez! Baina ez gaitzala argi printza horrek itsutu, zeren, barnean, Bizkaiko pilotaren osasuna ez baita ona.

Laster, berriz Danel Elezkano berari eta gehiago agian Mikel Urrutikoetxeari begira egongo gara denok, buruz buruko dator eta. Hala behar du gainera; ea beste lorpenik ere badatorren gurera. Baina, artean, gazteekin eta beheko mailetan egin behar da lan, eta hor erreparatu geroko izarrak lortzeko bidean. Eta ez esku pilotan bakarrik, baita palan, zesta-puntan edo nesken eskuzko zein palako jardunetan ere. Momentu honetan, bizkaitarren osasuna eskasa da. GRABNI txapelketan, federazioen arteko lehiaketa nagusian, bertokoen papera, oso makala. Txarra eskuzko ezker horman, berdin erremintan, eta hala moduzkoa zesta-puntan eta trinketan.

Non da akatsa? Zer da hobetu beharrekoa? Nondik hasi eta non bukatu beharko da eraldaketa? Horren guztiaren hausnarketa sakona behar du euskal pilotak. Egin beharreko lana, noski, gure izarren distira txalotzen dugun artean.

Asteko kirolaria

"Hegoafrikan dena ematera irten nintzen eta proba ezin hobeto irten zitzaidan"

Fradesek bigarren postua lortu du asteburuan Hegoafrikan jokatuako txapelketan.

Hawaiin jokatu den Munduko Ironman Txapelketarako txartela lortu du Gurutze Fradesek. Asteburuan Hegoafrikan izandako lasterketan sasoi betean dagoela erakutsi eta helmugan bigarren izan zen triatleta iurretarra; postu horri esker, Konako (Hawaii) lasterketan izango da.

Asteburuan bigarren izan zara Hegoafrikan jokatu den lasterketan. Zer moduz joan zen proba?

Lasterketa primeran joan zen, bikain. Lasterketara sasoi oso onean heldu nintzen, oso ondo negoen eta aurrez egin beharreko lana ondo eginda neraman. Aurretik, lasterketaren irakurketa bat egin

nuen eta, egia esan, gura nuen erritmoan aritu nintzen, eta gura nuen aurkariaren artean. Gainera, gureak oso lasterketa luzeak izaten dira, ordu askokoak, eta sufritu beharreko momentuetan ondo eutsi nion.

Esperotako emaitza izan da?

Banekien sasoi onean nengoela, baina inoiz ere ez dakizu lasterketan zer gertatuko den. Zure bizitzako lasterketarik onena egin dezakezu, baina baita zure aurkariak ere. Errespetu handia diet aurkariari, oso indartsuak dira, eta zeure lekuan jartzen zaituzte. Lasterketa hasi aurretik, banekien podiumaren lehian egoteko aukerak nituela, eta dena ematera

irten nintzen. Nire onena eman nuen, une oro lasterketan buru-belarri sartuta egon nintzen eta, azkenean, dena bikain irten zen.

Hegoafrikan bigarren izan ostean, Konako Munduko Txapelketarako txartela lortu duzu. Espero baino lehen lortu duzu proban sailkatzea?

Proban sailkatzeko formatua aldatu egin dute aurten. Orain, lasterketako lehenengo sailkatu biek zuzenean lortzen dute Munduko Txapelketarako txartela, eta nik oso zail ikusten nuen. Hala ere, Hegoafrikan dena ematera irten nintzen eta proba ezin hobeto irten zitzaidan.

Zein da zure hurrengo helburua?

Distantzia luzeko Munduko Txapelketa izango da. Espainiako selekzioagaz parte hartuko dut. Maiatzaren 5ean izango da, Pontevedran.



GURUTZE
FRADES LARRALDE

Iurreta, atleta

pelketa izango da. Espainiako selekzioagaz parte hartuko dut. Maiatzaren 5ean izango da, Pontevedran.

Ze asmogaz zoaz?

Sasoi onean nago, baina, hala ere, nik Hegoafrikako lasterketa prestatu dut, eta formatu aldetik desberdinak dira. Orduan, ikusi egin beharko da nola nagoen. Pontevedrako lasterketa prestakuntzarako hartu dugu kontuan, eta, beraz, lehenengoan artean egotea gustatuko litzaidake.

R.P.S. 214/06
A. Urreta podólogo

Ainara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Bulegorako zigituak
Fotolitoak

Betikoak flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

//AUKERA

ZALDIBAR. 3 log, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea. **120.000€**
ABADIÑO. 3 log, 2 komun, sukaldea, despentsa, egongela handia. Ganbara. **149.000€.**
SAN FAUSTO. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. **85.000€**
DURANGO. 2 log, komun, sukaldea, egongela, berogailua eta igogailua. **130.000€ neg.**
AUKERA. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela eta garajea. **98.000 €.**

//ETXEBIZITZAK SALGAI

LANDAKO. Apartamentua, 2 log, komuna (hidromasajea), sukaldea terrazarekin, egongela, trastelekua eta garajea. **180.000€.**
IURRETA. 2 log, komuna, sukaldea jangelarekin, egongela eta terraza. Bizitzera sartzeko prest. Eguzkitsua. **115.000 €**
TXIBITENA. 100 m2. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, esekitokia, egongela terrazarekin, ganbara eta garajea. **215.000 €.**
MIKELDI. Duplexa egiteko aukera, azken solairua. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, esekitokia, egongela eta garajea. ORAIN: **256.000€**
TABIRA. 3 logela, bainugela, sukaldea, despentsa, egongela, terraza, ganbara eta eguzkitsua. Dena kanpora begira. **190.000€**
ZABALE (Ask. Etorbidea). 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela, terraza. **170.000 €**
SAN IGNACIO. 100m2. 3 log, 2 komun, horma-armairuak, sukalde eta egongela handiak. Terraza. Garajea. Dena kanpora begira. Eguzkitsua. ALOKAIURUAN EROSTEO AUKERAREKIN.
PLATERUEN PLAZA. 3 log, 2 komun, sukaldea, egongela eta ganbara. Garajea aukeran. **225.000 €**
ZALDIBAR. Iturrioz. 3 log. komuna. Egongela. Terraza. Igogailua. **124.000€**
ANBOTO. Azken solairua. 3 log, komuna, egongela, balkoia, hegoaldera begira. **185.000**
ABADIÑO. Familia bakarreko etxea 484m2 lurzorian. Eraikitze aukera suen 100m2ko lurzoria aukeran.
ANDRA MARI. 100m2. 3 log, komuna, sukaldea, egongela handia, garajea aukeran. **229.000€**
MENDIZABAL. 2 log, komuna, sukaldea, balkoia, egongela handia eta ganbara. **186.000€**
ERROTARITXUENA. Apartamentua. Dena kanpora begira. Terraza. Garajea itxia. **220.000€.**
ALLUIZT. 126m2. 4 log, 2 komun, egongela, sukaldea, esekitokia, ganbara eta garaje itxia. KONTSULTATU.
IURRETA. 111m2. 3 log, 2 komun, sukaldea, esekitokia, egongela handia, 12m2-ko terraza, trastelekua eta garajea. **276.000 €**
BERRIAK ESTREINATZEKO. 3 log, 2 komun, sukaldea, esekitokia, egongela, terraza, ganbara eta garajea aukeran. **153.000 €**
MATIENA. LAUBIDETA. 3 log, 2 komun, sukaldea, egongela, 2 terraza, ikuspegia, eguzkitsua.
BERRIZ. 3 log, komuna, sukaldea, egongela eta terraza. **65.000€**
ZALDIBAR. 2 eta 3 logelakoa, eguzkitsua, dena kanpora begira, berriztatua. **99.000€**
F.J.ZUMARRAGA. 130m2. 3 log (printzipala bikoitza.) 2 komun, sukalde-jangela, egongela, 2 terraza, ganbara. 2 kotzentzat garaje itxia eta trastelekua aukeran. **285.000€**
DURANGO. 650m2 lurzoria eraikitze baimenarekin.
//LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIURUAN
ARTEKALE: 100m2. **83.000 €**
DURANGO. TABERNA marthan. 95 m2. **138.000€**
ZALDIBAR. Salmenta. Ganbara zabala. Egokia bulegoa eta estudioa izateko. 24-35 m2. EKONOMIKOA.
F.J. ZUMARRAGA. AUKERA. 114 m2. SALMENTA **150.000€**(Negoziazgarria)
IBAIZABAL. 50 m2. Guztia jarrita. SALMENTA / ALOKAIURUA. **500 €.**
ASK. ETORBIDEA. Garaje itxia. **18.800€**

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO. Eraikin berria. Hiru logelako azken etxebizitza salgai. **200.000€.**
DURANGO. Jose Miel Barandiaran. Pisu ederra, 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua. Aukera ederra Durango erdian bizitzeko.
MAÑARIA. 3 logelako pisua, komuna, sukaldea, despentsa, egongela eta ganbara. **80.000€.** Bizitzeko moduan.
DURANGO. Komentukale. Pisu ederra, 3 logelakoa, komun bat, sukaldea, egongela eta ganbara. Bista ederrak
BERRIZ. 3 logelako pisua. Komuna eta egongela. Ganbara ere badu. Oso eguzkitzua eta merkea.
DURANGO. Goienkale kalean. Logela biko pisu ederra, 90 m2 ganbarekin.
IURRETA. Maspe kalean. Hiru logelako pisu argitzua. Egongela eta sukaldea balkoiarekin, komuna eta igogailua.
DURANGO. Hegoalde kalean, izugarriko adosatua salgai, 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza, lorategia, ezin hobea.
LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.
ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea esekitokiarekin eta egongela.
ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.
BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.
IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.
ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000m2. Informazio pertsonalizatua.
AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliarr bat eraikitze lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

BERRIZ. Baseri erdia, 1.000 m2 lur sailarekin, sukaldea, terrazarekin, 3 logela, komuna, garajea, trastelekua, etabar. **180.000€**
ABADIÑO. Bifamiliarra salgai. 4 Logela, 3 komun, sukaldea, egongela, garajea. Oso polita.
ATXONDO. Marzana. Izugarriko txaleta salgai, Ikuspegi bikaina, berri berria!!!
MAÑARIA. Izugarriko baserria salgai. Herrian bertan. Lursaila 3.000 m2. Bizitzeko moduan. Oso polita.
ELORRIO. Aldape auzoa. Baserria berriztatze, 3 hektareako lursaila. Prezioa 125.000.-€
ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.
BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.
MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriztatze. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.
DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatze.

//BULEGOAK ALOKAIURUAN

ABADIÑO. 40 m2-tik gorako bulegoak, 350 €-tik hasita.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000.-€ tik aurrera

//LOKALAK ALOKAIURUAN

Alde zaharrea, tamaina ezberdineko lokalak alokagaitu. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA. 460 m2-ko lokala salgai, bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



BERRIZ
3 logela
70,1 m²
BERRIZ: Erdigunean. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, komuna eta balkoia. Trastelekua. Egoera onean, berogailu elektrikoak kontsumo baxukoak. Mendebaldera eta ekialdera begira
180.000€



DURANGO
3 logela
80,7 m²
ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, egongela, sukaldea jarrita (beste bainugela bat ateratzeko aukera). Gas natural berogailuak. Igogailua.
180.000€




DURANGO
3 logela
70 m²
ANTSO ESTEGIZ: 70 m2, 3 logela, bainugela (berriztatua dutzarekin). egongela, sukaldea jarrita. Egoera onean.
160.000€



DURANGO
2 logela
ZEARKALEA: Igogailuarekin. 2 logela, sukaldea jarrita eta bainugela. Dena kanpora begira. Ekialdera begira.
130.000€



ERMUA
2 logela
70 m²
ERMUA: 70m2. 2 logela (beste logela bat ateratzeko aukera), egongela, sukaldea jarrita, bainugela, 2 terraza eta despentsa.
124.000€



MATIENA
3 logela
64 m²
MATIENA: 64m2, 3 logela, bainugela, sukaldea jangelarekin eta egongela. Argi asko espazio guztietan. Berogailua.
112.000€

//DURANGO

ALLUIZT KALEA 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garaje itxia eta ganbara. **295.000€ / E.E.Z=E**
ASKATASUN ETORBIDEA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000€ / E.E.Z=F**
ANTSO ESTEGIZ 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. **160.000€ / E.E.Z=E**
ERRENTXU 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000€ / E.E.Z=E.** Garaje itxia aukeran
EZKURDI 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela eta igogailua. LEHEN 321.500€ / **ORAIN 300.000 € / E.E.Z=F**
KALEBARRIA 2 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta komuna. **82.000€ / E.E.Z=G**
KURUTZIAGA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. **99.000€ / E.E.Z=Bidean**
MIKELDI 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta ganbara. LEHEN 270.000€ / **ORAIN 256.000 € / E.E.Z= E**
SASIKOA KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia igogailua, garajea eta trastelekua. **210.000€ / E.E.Z=E**
ZEHARKALE 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. LEHEN 150.000 € / **ORAIN 130.000 € / E.E.Z= E**

//ABADIÑO

ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000 € / E.E.Z=Bidean**
ZELETABE 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, terraza eta garajea. LEHEN 342.576 € / **ORAIN 288.000€/E.E.Z=E**

//ATXONDO

ARRAZOLA ERREPIDEA 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000€ / E.E.E=Bidean**

//BERRIZ

BILBO ETORBIDEA 3 logela, sukaldea, egongela-jangela, 3 komun eta balkoia LEHEN 195.000€ / **ORAIN 180.000€ / E.E.E= E**

ERROTATXO KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. LEHEN 95.000€ / **ORAIN 85.000€ / E.E.Z=E**

//ELORRIO

ELIZBURU KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. LEHEN 189.000€ / **ORAIN 169.000€ / E.E.Z=E** Garaje itxia aukeran.

//IURRETA

AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, terraza, igogailua, ganbara eta garajea **276.000€ / E.E.Z=E**

FAUSTE Baserria lurzoruagaz, **220.000€ / E.E.Z=G**

SANTA MAÑA 3 logela, sukaldea, egongela bainugela trastelekua eta lursailarekin **125.000€/ E.E.Z=G**

//MATIENA

TXINURRISOLO 3 logela, sukaldea egongela balkoiagaz eta bainugela **200.000€ / E.E.Z=F**

//MAÑARIA

EBARISTO BUSTINTZA KIRIKIÑO 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, 2 balkoi, 2 ganbara. eta txokoa **150.000€ / E.E.E=Bidean.** Txokoa aukeran

//ZALDIBAR

ZALDUARAN KALEA Banakako etxebizitza. 373m2 inguru hiru solairutan banatuta. 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, garajea eta txokoa. 669m2 inguruko lur sailarekin. **460.000€ / E.E.Z=E**

//ZORNOTZA

SAN PEDRO KALEA 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, bainugela, ganbara eta garajea. **170.000€ / E.E.Z=Bidean**

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean



HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA/NEGOZIOAK
DENETARIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA/KIROLA
FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Elorrio. Atiko polita errentan Elorrioren. 50 metro karratu. Igogailuarekin. Tel.: 631-12 31 06

Abadiño. Muntzaratzen lonja itxia salgai. Merkea. Tel. 609 777 420

Elorrio. 70 metro karratuko etxebizitza salgai Elorrioko Argiñeta Etorbidea 20 zenbakian. 3 logeladuna. Beheko solairua. Eraberritze-obra behar du. Tel.: 655066784

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Durango. Hiru emakume arduratsua gara eta gelak alokagai edota San Fauston edo Durangon etxe baten bila gabiltza. Deitu: 644930679

Otxandio. Otxandion garaje plaza bat alokatzen da. Tel.: 675717283

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Elorrio. Jantzitako pisu baten bila nabil, alokatzeko, Elorrioren. Tel.: 94 658 21 91. Begoña.

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Esperientziadun umezalna. Kaixo. Irantzu naiz eta Durangon bizi naiz. Urte askotako esperientzia daukat umeak zaintzen eta begirale moduan. Umezain lan bila nabil. Ahal izanez gero ordu solteak edo lanaldi erdira. Tel.: 644411174

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsua eta esperientzia handikoa lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, gauz zein egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Tel.:646-35 87 09

IRAKASKUNTZA

Ingeles irakasle partikularra.

Euskal ikasketak ikasten nabil eta ingeles irakasgairako laguntza beharko nuke. Pertsona horrek C1-C2 eduki behar du eta ahal izanez gero ingeles filologia ere bai. Egunerokotasuneko lanak egiteko izango litzake bai writing-ak, fonetika... Interesatuta zaudetenak kontaktuan jarri. Tel.: 606754623 (ANA).

LAN ESKAINTZAK

Etxeko lanak egiteko, edo adineko pertsonak zein umeak zaintzeko lan bila nabil. Kaixo, etxeko lanak egiten zein adineko edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Neska latinoamerikarra naiz, arduratsua, tratu onetara. Jendearekiko harremana gustatzen zait. Edozein inguru zein pertsonengana egokitze gaitasuna daukat eta azkar ikasten dut. Barneko langile moduan lan egiteko prest nago, adineko pertsonak edo umeak zaintzen edota etxeko lanak eta janaria

prestatzeko ere. Berehalako prestutasuna daukat. Bizkaia edota Gipuzkoan. Telefonoz edota whatsappez kontaktatu, gaztelaniaz mesedez. Tel.: 644930679

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest nago, Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuek deitu edo Whatsapp-a bidali 602895018 telefonora. Gaztelaniaz mesedez.

Barneko langile gisa lan bila.

Adineko pertsonak (barneko langile) edota haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa lanak egiteko, arropa litzatzeko, sukaldaritza lanak egiteko prest nago (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin: 644558390

Barneko langilea lan bila.

Emakume arduratsua lan bila. Barneko zein kanpoko langile gisa adineko pertsonak zaintzen edo haurren zaintzan lan egingo nuke. Sukaldean ere aritu naiteke. Berehala hasteko moduan: 632705225

Barneko langile gisa lan bila.

Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu: 643727198 telefono zenbakira.

Denetarik

GAINERAKOAK

Ollanda eta oilaskoak salgai (Euskal Oiloa- Zilarra arrazakoak) Oilanda eta oilaskoak salgai. 2 hilabete dituzte. 10 euro bakoitza. Tfnoa. 655 066 784



IBAN ZALDUA ASTE HONETAN IBAI GOMEZ


DOAN

Ttap euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.



ttap
Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

Informazio gehiago:
ttap.eus



DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n

Botikak

BARIKUA, 12 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 13 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - **DURANGO**

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA
Berrio-Otxoa 6 - **ELORRIO**

EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI San
Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

DOMEKA, 14 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 15 · 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 16 · 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 17 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 18 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



**GOZATU
GOZATEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



Kurutziaga ikastolako LH2. mailako ikasleek ANBOTO bisitatu dute. Gelan hedabideen gaia lantzen ari dira, eta gure lantaldeak zelan funtzionatzen duen ikusi dute. Adi entzun dituzte gure azalpenak. Biba zuek!



Zorionak, **Uxue!** Muxu handi bat etxekoon partez!



Zorionak, maitxia! 10 urte gure gizontxoak, maite zaitut... infinito! Aitatxon ta familian partez.

Eguraldia

ZAPATUA 18° / 2°



MARTITZENA 15° / 8°



DOMEKA 17° / 5°



EGUAZTENA 20° / 6°



ASTELEHENA 12° / 9°



EGUAZTENA 16° / 11°



Eskela



**Jesus Mari
Uribelarrea
Iturriagaetxebarria
"Txiflis"**



Pertsona noble eta umille
gizatasun osokue
harrotasunez esango dogu
nor zan gure aitte-puntekue

ZURE BESUETAKUEK
Unai Esturo Uribelarrea eta Udane Rodriguez Uribelarrea



**Jesus Mari
Uribelarrea
Iturriagaetxebarria
"Txiflis"**



Puntapijue zelan behar zan
erakutsi huan plazan,
gazte gazterik jantzari-jantzan
Txiflis Maixue heu hintzan

Ijorretako dantzarijiek
Iurretan, 2019ko apirilaren 12an

**Seguros
Bilbao**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda**

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxes: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

DIBA
K O O P E R A T I B A

**Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea**

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

“Bagoaz-ek musika berreskuratu eta gauza berriak ikasteko aukera eman dit”

Familiak eta lagunek musikan jardutera animatu dute beti Eider Etxeandia, eta bide hori urratzen hasita dago. Orain, telebistako 'Bagoaz' saioan ikusi dezakegu gauza berriak ikasi guran

Eider Etxeandia
Etxebarria
(Zornotza, 1998)
• Bagoaz

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Artista izateko jaioa da Eider Etxeandia. Hala dio berak. Hala ere, argi dauka bide zaila duela aurretik. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak eta Magisteritza ikasketak egiten dabil, eta saskibaloian eta errugbian jokatzeko du. Horrez gainera, Ilargi Beltza erromeria taldean abesten du. Orain, ETBko Bagoaz 'talent show'-an ere ikusi dezakegu. Zornotzarrak pozik eta ezin sinistuta onartzen du berari argazkia ateratzea eskatzen diotenean. Eiderrek ez du lotsarik, baina bai energia soberan.

Bide erdia egin duzu 'Bagoaz'-en. Nolako esperientzia izaten ari da?

Oso ona. Ez nuen uste inondik inora hartuko nindutenik, ezta honenbeste iraungo nuenik ere. Musikan jardutea eta ikastea gura nuen nik. Gainera, abestiaren arabera interpretatu ere egin behar dugu. Ez dut inoiz antzerkirik egin, baina beti gustatu izan zait. Nire saltsan nago! Gure artean dagoen giro ona ere nabarmenduko nuke.

Sari nagusia Goazen telesailean parte hartzea da. Ikusten duzu zeure burua aktore moduan?

Piloa gustatuko litzaidake! Itzela litzateke. Telesail musikala, eta euskaraz gainera. Fantasia bat. Txikitatik esan dut artista izan gura dudala, eta nahiko nuke musikatik bizitzea. Baina badaikit oso zaila dela. Ez dakit lekurik izango dudan mundu horretan eta ezin ditut ikasketak utzi.

Goazen-en jarraitzailea zara?

Goazen pelikula ikusi nuen eta asko gustatu zitzaidan. Xarma apur bat galdu zuen atalka ematen hasi zirenean. Baina, azken urte bietan, jarraitu izan dut.

Musika munduan lorbideta da zuretzat Bagoaz?

Baztertuta utzi nuen zerbait berreskuratzeko modua izan da Bagoaz. Kirola eta musika aukeratu beharrean izan nintzen orain urte batzuk; kirola aukeratu nuen eta ikasketak ere horretara

daki' taldeetan ere abestu izan duzu.

Asko dut oraindik ikasteko. Familian asko bizi izan dugu musika. Aitak aire instrumentuak jo ditu, ama koroan ibili da, eta ahizpak ere abesten du. Txikitatik oso barneratuta izan dut musika. Solfeon eta koroan ibilia naiz; trikitia eta panderoa jotzen...

Eszenatokiak ez dizu beldurrik ematen.

Beldurrik ez, errespetua bai. Eszenatokian ahalik eta ondoen egin gura duzu, eta gauzak ez dira beti ondo irtetzen. Egunero egongo nintzateke oholztan.

Zein musika estilo gustatzen zaizu gehien?

Edozein. Estilo guztietan egon daitezkeelako gustuko ditudan abesti puntualak.

Edozein abestiri heltzeko prest zaudete...

Bai. Emandako abesti horri neure estiloa emango diot. Sidney O'Connorsen abesti bat eman zidatenean erronka moduan hartu nuen, ez nuen ezagutzen eta lan gehiago eskatzen du horrek. Erronka lez hartzen ditut horrelakoak, aberasteko era bat da.

Berba bitan

• **Abesti bat?**

Flashlight (Jessie J)

• **Pelikula bat?**

'Bizitza ederra da'

• **Amets bat?**

Musikagaz lotutako nazioarteko proiektu hezigarri handi bat garatzea ahizpagaz. Oso masiboa.

• **Zerk hasarrazten zaitu?**

Norbait nigaz hasarrazteak

• **Mania bat?**

Azazkalak jaten ditut.

bideratu ditut. Orain, aukera berri bat dut musika berreskuratu eta gauza berriak ikasteko.

Ondo uztartzen dira musika eta kirola?

Bien artean erlazio zuzena ikusi dut beti. Kirolaria eta abeslaria izatea goren iruditzen zait. Hori izan gura dut. Zaila da artisten mundua: batean goi goian zaude eta bestean, behean.

Baduzu eskarmentu apur bat musikan. 'Ilargi Beltza' taldeko abeslaria zara eta 'Zirkirik bez' eta 'Batek



Lau hortza

Bixente Aizpurua Eguren
Irakaslea



Despopulatzea

Etengabe populazioa galtzen ari diren zenbait herrialdek manifestazio erraldoia burutu zuten Madrilan. Bertan, herritarrek ozenki aldarrikatu zuten herrietan duintasunez bizitzeko eskubidea. Kanpaina ari diren politikarien belarriak berotu nahi izan dituzte, hartu beharreko neurriak har ditzaten herriak ez husteko.

Euskal Herrian kezkatzekoa da Arabako mendi aldean eta Karrantza inguruan gertatzen ari dena. Hor nekazaritzatik eta abeltzaintzatik bizi dira eta alor horretan ia ez dago erreleborik, bizi baldintzak gogorak direlako eta ez delako erakargarria gazteentzako. Etekin handienak bitartekariak eramaten dituzte, eta ondasunen sortzaileak “izerditan blai eta patrikak hutsik.”

Gure inguruan ia berdina ari da gertatzen. Baserri inguruko auzoak pixkanaka zahartzen doaz eta baserriak husten.

Adibidez, Elorrioren nire auzoan, egoera errepikatzen da. Hogeiren bat baserri daude. Urte asko ez dela, ia denetan abelburuak eta ortu ikusgarriak zeuden, baina gaur egun bospasei baserri baino ez dira. Baserriak bi familia baino ez dira bizi eta, zorionez, bat bikote gazte bat da. Zortzerik onena opa diet.

Honi buelta emateko asko hobetu behar da herritar horien bizitza: komunikabideak hobetu, bai errepideak bai internet eta telefonoen koberturak, lana egoki ordaindu, laguntasun duinak eman, beraien lana kontuan izan eta ez hauteskundeak direnean bakarrik.

Ea legealdi berri honetako politikariek erantzun azkarra eta zuzena ematen dieten eta herri eta auzoak berriz etorkizuna ziurtatuko duten ume eta gazteekin betetzen diren. Hala bedi!

LURGORRI

ZORNOTZA

Kolorea emango diegu zure udaberriari !!

LORATEGIA-ORTUA

- Landare klinika

- Zuhaiak eta igokariak

- Mini ortuak

- Sasoiko landareak

- Usaintsuak



lurgorrizornotza@gmail.com • Tel.: 94 630 08 25 • www.lurgorrizornotza.com
• Iburguren Auzoa, 6 (N-634 errepidea) - 48340 ZORNOTZA (Bizkaia)